

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXII. edizioa

2 0 2 0



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXII. edizioa

2 0 2 0

*Mis
Rafael Koleta*

Fotokonposizioa eta fotomekanika:
ARTEBURU, C.B.

Inprimatzailea:
ARTEBURU, C.B.

Lege Gordailua: BI-01471-2020

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Urte nahasia dugu aurtengo hau. Birusak gure egunerokotasuna aldatu du, aurten ohi baino beranduago batu gara Arabiar Areto honetan, baina ez du zuen gaitasuna, sormena, lana eta ahalegina itsutu. Horrexegatik gaude hemen, zuen sorkuntza lan hori saritzeko, goraiatzeko.

Hasteko, gure hizkuntzan, euskaraz, idazteagatik nire zorionik beroenak. Istorio ederrak idatzi dituzue gure hizkuntzan, eta horrekin bultzada handia eman diozue euskarari gure urian, Bilbon. Gogoan izan erreferente zaretela zuen adineko neska-mutilentzat, eta hori harro egoteko modukoa da.

Aurten 8 eta 18 urte bitarteko 900en bat parte-hartzaile egon dira eta horiei guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiet.

Bukatzeko, gauza bakarra eskatzen dizuet: ez utzi irudikatzeari, sortzeari eta idazteari... eta parteka ezazue sortzen duzuen lana gurekin guztiokin.

Zorionak eta eskerrik asko egin duzuen lanagatik.

Juan María Aburto
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hogeiko martxoaren hamazazpian, modu telematikoan batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXXII. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 882 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. AMONAREN ZORRO MAGIKOA
Ana María Brumari Toader
Basurto HLHI
2. BERRIA IZATEA EZ DA TXARRA
Maiane Montes Ubeda
Kirikiño Ikastola HLBHIP
3. OPARI BEREZIA
Iker Bécares Esteban
Iruarteta HLHI

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. TALDE BAT GARA!
Elene Elorriaga Legarreta
Kirikiño Ikastola HLBHIP
2. EGUNEROKO ESAMESAK
June Elola Garcia
Maestro García Rivero HLHI
3. AMETSAREN BILA
Maren Jia Yuan Garabieta García
La Salle Bilbao HLBHIP

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. HIL ARTE, BIZI!
Kattalin Begoña Marin
Artxandape Ikastola HLBHIP
2. ASHANTIREN ZAZPI EGUNAK
Jone Rubio Villa
Artxandape Ikastola HLBHIP
3. TALDE-LANA IZAN DAITEKE...TXIKIA
Jon Larriba Urrutia
Ikasbide HLBHIP

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. ZARENA IZATEN
Itxasne del Barrio Calvo
Artxandape Ikastola HLBHIP
2. ZUHAITZ BATEN IKUSPUNTUA
Lucía Álvarez Sáiz
San Ignacio BHI
3. IZARRARTEKOA
Jone Candela Fernández
Artxandape Ikastola HLBHI

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

MUNDUAREN AZKEN AUKERA

Adrián Escudero Gutiérrez

San Adrian BHI

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

HONDAMENERANZKO PASAIA

Katalin Cámara San Pedro

San Ignacio BHI

ARGITARAGARRIAK

A KATEGORIA:

BIDAIA AHAZTEZINA, Inge Castrillo Gandara, Pagasarribide HLHI

OINATZ MISTERIOTSUAK, Ane Ulacia Calzacorta, La Salle Bilbao HLBHIP

EGIN AHAL DENA, Peio Zabalegi Redondo, Kirikiño Ikastola HLBHIP

B KATEGORIA:

ZURI GLOBULUAREN BIDEA, Nile Garitano Lafont, Deustuko Ikastola IPI

GABIREL OTSOA, Gabriel Minguez Díez, Kirikiño Ikastola HLBHIP

NIRE MUNDUAN, Saioa Artetxe Sanz, Maestro García Rivero HLHI

C KATEGORIA:

HORRELA KOAK DIRA DENON BIZITZAK?, Nahia Embún Ríos, Artxandape
Ikastola HLBHIP

CARLAREN AMETSA, Enara Peña Iturralde, Gabriel Aresti BHI

JOAN ZEN BIDAIA, Endika López de la Merced, Begoñazpi Ikastola HLBHIP

D KATEGORIA:

BELDURRA GAINDITZEN, Anne Andrés Sánchez, Artxandape Ikastola HLBHIP

BAT EGIN GENUEN BIDAIA, Maialen Cámara San Pedro, San Ignacio BHI

PAUSOKA, Iraide Domingo Fernández, Artxandape Ikastola HLBHIP

Eta batzarra bukatutzat eman da, Bilbon, bi mila eta hogeiko martxoaren hamazazpian.

Koldo Narbaiza Olaskoaga, epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea

Igone Etxebarria, epaimahaikidea

Irune Urrizelki, epaimahaikidea

Julen Gabiria, epaimahaikidea

Juan Ramon Madariaga, epaimahaikidea

Txani Rodriguez, epaimahaikidea

Goizalde Landabaso, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria



A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



AMONAREN ZORRO MAGIKOA

Ana María Brumari Toader
Basurto HLHI

Baziren behin Mikel eta Itsaso izeneko bi neba-arreba. Itsasok bederatzi urte zituen. Oso neska dibertigarria zen. Abestea eta dantzatzea oso gustuko zuen. Bere neba nagusiagoa zen, hamabi urte zituen. Mikel altua zen eta oso gogoko zuen saskibaloian jokatzea.

Noizbehinka amona Kristinak bisita egiten zien. Bera noiz etorriko zain igarotzen zituzten egunak bi ilobek. Amonarekin primeran pasatzen zuten eta asko maite zuten. Lagun guztiei kontatzen zieten:


—Gure amonak botere magikoak dauzka!

Amonak zorro bat eramaten zuen beti berarekin, ilobek magikoa zela pentsatzen zuten. Arazo bat izaten zuten bakoitzean, amonak zorroa ireki eta konponbiderako zerbait ateratzen zuen beti.



Behin, Mikelek saskibaloiko talde batean sartu nahi izan zuen. Horretarako, proba bat egin behar zioten. Mikel oso urduri zegoen. Ez zen baloiak saskiratzten oso ona. Baina zorrea izan zuen, egun berean amonaren bisita izan zuelako. Amonak bere zorroa ireki eta oinetako magikoak atera zizkion Mikeli.

—Tori, Mikel. Oinetako hauek jantzita, salto itzelak emango dituzu —azaldu zion amonak. Mikelek saskiratze asko egin zituen amonak emandako oinetakoekin, eta taldean sartzea lortu zuen.



Itsasori ere abeslaria izaten lagundu zion amonak. Itsasok eskolako abesbatzan parte hartu nahi zuen, baina probak egiten zizkioten bakoitzean, ahotsik gabe geratzen zen. Amonak zorroa ireki eta konponbidea atera zuen.

—Tori, laztana. Mikrofono honekin abesten baduzu, ez duzu ahotsik galduko—. Eta horrela Itsaso eskolako abesbatzan sartu zen mikrofono magikoarekin proba gainditu ondoren.

Normala zen amonak botere magikoak zituela pentsatzea, baina, egia esan, objektu arruntak ziren, denda arruntetan erosiak.

Amonak botere magiko bakarra zuen, baina ezinbestekoa: erabateko konfiantza.

BERRIA IZATEA EZ DA TXARRA

Maiane Montes Ubeda
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Baziren behin Unai izeneko mutil bat eta Nahia izeneko neska bat. Unaik 10 urte zituen eta oso altua zen. Nahiak 9 urte zituen eta oso indartsua zen. Txikitatik elkar ezagutzen zuten, euren amek ikastolatik elkar ezagutzen baitzuten. Hori dela eta, elkarrekin jolasten denbora asko pasatzen zuten.

Egun batean Paula izeneko neska bat Txinatik heldu zen. Paulak 9 urte zituen eta Nahiaren gelara sartu zen. Oso bajua zen eta lotsatuta zegoen. Gainera, ez zekien euskaraz, ez zuen ezer ulertzen.

Jolastokian Paula bakarrik zegoen, inork ez zion kasurik egiten. Unai eta Nahia Paulari begira zeuden, ez zekiten zer egin. Euren artean minutu batzuk hitz egin eta gero, Paularengana hurbiltzea erabaki zuten.

—Kaixo, ni Unai naiz eta hau Nahia da, gurekin jolastu nahi duzu? —galdetu zion Unaik.

Baina Paulak ez zuen erantzun, ez zuen ezer ulertu eta.

—Nik probatuko dut orain —esan zuen Nahiak, eta keinuak egiten hasi zen.

Paulak ez zuen ezer ulertzen, baina barregarria iruditu zitzaion eta irribarre egin zuen. Orduan, keinuka hasi ziren hirurak euren artean.

Gelara bueltatu zirenerako, Paula alaiago zegoen: «lehenengo eguna ez zen hain txarra izan» —pentsatu zuen.

Hurrengo goizean, Paula gogotsu joan zen ikastolara. Euskara ikasi behar zuela bere buruari esan zion, bestela, lagunak egitea ezinezkoa izango zen.

Baina bigarren egun horretan gauza batez ohartu zen: gela barruan irakasleekin umeez euskaraz hitz egiten zuten eta lan eta liburu guzti-guztiak euskaraz

zeuden. Baina jolas orduan, ordea, beste hizkuntza batean hitz egiten zuten, eta berak ez zekien hizkuntza hori.

Paula oso nahastuta zegoen, baina berak euskara ikastea erabaki zuen, gelan euskaraz bakarrik hitz egiten baitzen.

Jolas orduan Paula keinuen bidez hitz egiten saiatu zen Unai eta Nahiarekin. Euskara ahalik eta arinen ikasi behar zuen, eta horretarako, euren laguntza behar zuen.

Unaik eta Nahiak Paula oso kezkatuta ikusten zuten, ikastola berri batera etortzea eta lagunik ez izatea oso gogorra izan behar zuen, baina are gogorragoa lagun berriekin hitz egin ezin izatea. Horregatik, Paulari laguntzeko asmoarekin euskaraz hitz egiten hasi ziren.

Hasiera batean hitzik sinpleenak euskaraz nola esaten ziren Paulari erakusten hasi ziren, eta aldi berean, Paulak txinatarrez nola esaten ziren ere erakusten zien.

Ah, zein barregarriak ziren hitz batzuk txinatarrez! Jolas orduak barreka pasatzen zituzten hirurek.

Beste gelako lagunak ere hurbildu zitzaizkien:

—Baina zer dela eta hainbeste barre? —galdetu zien Ibonek.

—Kaixo, ni Paula naiz —bat-batean erantzun zuen Paulak. Bere lehenengo esaldi osoa zen euskaraz; Paula egun hartan oso pozik itzuli zen etxera.

Hurrengo goizean, jolas orduan gelako beste lagun batzuk zeuden Paulari laguntzeko asmoz.

—Zergatik ez dugu jolasten hitz gurutzatuetan? —proposatu zuen Izarok.

—Ados, nik Paulari lagunduko diot —esan zuen Uxuek.

Eta apurka-apurka gelan eta lagunekin patioan Paulak euskara ikasi zuen, eta gelakideek, konturatu barik eta Paula laguntzeko helburuarekin, euren artean euskaraz hitz egiten zuten.

Eta horrela ikastolako Euskalprix saria irabazi zuten, eta ikasturte amaieran Zuhatzako uhartera ospatzera joan ziren.



OPARI BEREZIA

Iker Bécaries Esteban
Iruarteta HLHI

Negua amaituta zegoen eta udaberria hasi zen. Aste Santurako egun gutxi geratzen ziren eta kurtsoaren amaiera hurbil zegoen. Gainera, nire urtebetetze eguna laster iritsiko zen. Bederatzi urteko umea nintzela kontatuko dizuet:

Nire urtebetetzea maiatzaren 1ean da, eta nik nire gurasoei bizikleta berri bat eskatu nien, nirea oso txiki geratu zelako. Larunbat goizean nire gurasoak hainbeste nahi nuen oparia erosteko asmoz altxatu ziren. Haiak joango ziren supermerkatu erostera, baina hori ez zitzaidan asko gustatzen; orduan, Santutxun utzi ninduten, amamaren etxean. Arratsaldea etorri zen, nire gurasoak itzuli ziren erosketekin eta ikusi ahal izan nuen nire oparia.


—Nire bizikleta zen! A ze nazka!

Erosi zidaten bizikleta oso itsusia zen, beno, hobeto esanda, izugarria.

Asmatu zuten gauza bakarra izan zen handiagoa zela, botila berde kolorekoa zen, bi ahuntz-adarren antzeko eskuleku batekin.

Nik galdetu nien gurasoei ia bazegoen beste bat ederragorik, eta erantzun zidaten oso prezio ona zeukala, dendan zortzi urte baino gehiago baitzeramatzan. Eskerrak oso konformista naizen! Nire urtebetetzea iritsi zen, eta han estreinatu ahal izan nuen nire bizikleta izugarria. Lotsa ematen zidan hura auzotik eramateak.

Lehen egunean erabiltzen hasi nintzen, Gernikako lorategien parkeari (Miribillan) berrogei buelta baino gehiago eman nizkion; oso ondo aldatzen zituen martxak eta erabiltzeko oso erraza zen.



Hurrengo astean, larunbata zela eta ez zuela euria ari aprobeztatuz, etxerako lanak amaitu ondoren, berriro bizikleta atera nuen. Orduan, bizikletak gauza arraroak egin zituela sentitu nuen.

Oraingoan ezin izan nuen kontrolatu, sentitu nuen ezin nuela oinezkoen pasabidetik pasatu semaforoa berde jarri arte itxaronda.

Bera bakarrik gelditzen zen!

Ez nion garrantzi handirik eman.

Bi egun geroago, jaitsi nuen bizikleta eta sentitu nuen ez zela bizikleta normala, berriz ere bizikletaren kontrola galdu nuelako. Orduan, eskulekua biratu egin zen eta pedalak ere berehala biratu ziren. Parkearen amaieraraino eraman ninduen, eta haur txiki baten aurrean gurutzatu zen, kalea bakarrik gurutzatzen ez uzteko. Hori gertatu ondoren, kamioi baten balaztada entzun zen. Bi aste geroago, bizikletak antzeko zerbait egin zuen. Oraingoan lagunekin nengoen, lan batzuk egiten ari ziren Compostela kalean. Eraikin bat berritzen ari ziren. Ni lehenengoa nintzen nire bizikletarekin, obren azpitik pasatzera nindoala, bizikleta gurutzatu egin zen berriz, eta ez ninduen ni pasatzen utzi, ezta nire lagunak ere; bat-batean aldamio bat erori zen. Nire bizikletak ustekabeko istripu batetik salbatu gintuen! Nire bizikletaren kontura hainbeste barre egin zuten lagunak aho zabalik geratu ziren; egun horretatik aurrera hobeto tratatu zuten. Bilboko Athletic Cluben eranskailuak ekarri zituzten, apaintzeko. Nire lagunik onenak txirrin bat oparitu zidan eta nik nire itsulapikoko diru-pixka batekin bi argi erosi nituen jartzeko.

Orain lagun guztiek nire bizikleta eskatzen didate Miribillako politena iruditzen zaielako.

BIDAIA

AHAZTEZINA!!!

Inge Castrillo Gandara
Pagasarribide HLHI

Bazen behin Paula izeneko neska bat. Paulak 18 urte zituen eta Bilbon bizi zen. Oso neska ausarta zen, bere bizitzan bakarrik egingo zuen lehenengo bidaia prestatzen ari zen. Oso urduri zegoen, baina pozik ere bai. Kotxe berria zuen. Bidaia hura abentura handia izango zen.

Maleta egin zuen eta kotxearen bila joan zen. Mapa begiratu eta Lesakarrantz abiatu zen. Musika entzuten joan zen denbora guztian, eta konturatu gabe, Lesakara ailegatu zen. Internet bidez aterpe bat hartuta zeukan.

—Heldu zenean, baserri polit bat ikusi zuen eta barrura sartu zen.

—Kaixo! —esan zion norbaitek.

—Kaixo! —esan zuen Paulak.

—Ni Mikel naiz, zu Paula zara?

—Bai, Paula naiz.

—Begira, hau Izan da, hemen ere pasatuko du asteburua.

—Kaixo, Izan!

—Kaixo, Paula!

Paulak bere gelan utzi zuen maleta eta Izanekin hitz egiten hasi zen. Lagunak egin ziren. Hurrengo egunean Zugarramurdira joatea pentsatu zuten. Afaldu zuten eta ohera joan ziren.



Hurrengo egunean goiz altxatu ziren. Gosaldu zuten eta Paularen kotxera joan ziren. Zugarramurdirantz abiatu ziren. Sorginen istorio asko zekizkiten eta oso urduri zeuden biak.

—Heldu gara —esan zuen Paulak.

—Oso polita da Zugarramurdi! —esan zuen Izanek.

—Bai, oso polita!

Leizerako bideko kartela ikusi zuten eta joan egin ziren.

—Zein handia den! —esan zuen Paulak. Txikiagoa zela pentsatzen nuen.

Barrura sartu ziren. Ez zegoen inor.

—Zergatik gaude gu bakarrik? —galdetu zuen Izanek.

—Igual oso goiz da. Goazen barrura!

Aurrera joan ziren. Harrigarria zen! Leize handia zen, baina beste txiki batzuk ere bazeuden. Guztietatik sartu ziren. Linterna eramatea ahaztu zuten, baina mugikorrekin konpondu ziren.



Denbora luzea pasatu ondoren, bat-batean bi emakume ikusi zituzten.

—Kaixo! —esan zuten emakumeek.

—Kaixo! —erantzun zuten Paulak eta Izanek.

—Nortzuk zarete?

—Paula eta Izan gara. Eta zuek?

—Gu Engraxi eta Martina gara. Zertara etorri zarete? Gaurko jaira?

—Ez, leizeak ikustera etorri gara. Jai bat dago gaur?

—Bai. Nahi baduzue, gelditu ahal zarete.

—Eskerrik asko! Bai, geldituko gara.

Bat-batean, emakume asko etorri ziren. Denak pozik zeuden eta abesti asko zekizkiten. Leizearen erdian sua piztu zuten, eta emakume guztiak suaren inguruan dantza egiten hasi ziren. Paula eta Izan flipatuta zeuden. Sorginak izango ziren Engraxi, Martina eta emakume guztiak?

Engraxik eta Martinak eskutik heldu zieten eta beraiekin dantza egiten hasi ziren. Zelako jai ona! Primeran pasatu zuten. Lagun pila bat egin zuten, eta jaia bukatu zenean, beste batera gonbidatu zituzten baldintza batekin: ezin zioten inori kontatu ikusi zutena. Baietz esan zuten eta kotxera joan ziren.

Kotxera heldu zirenean, ezin zuten sinetsi! Akelarre batean egon ziren! Engraxi, Martina eta beste emakumeak sorginak ziren. Ez zioten inori kontatuko eta hurrengo akelarrera bueltatuko ziren.

Lesakara heldu zirenean, Mikel ikusi zuten.

—Kaixo! Zelan pasatu duzue eguna? Zugarramurdi gustatu zaizue?

—Bai, asko! —esan zuten biek batera, eta barrezka hasi ziren.

—Zergatik zaudete barrezka?

—Ezer ez, ezer ez. Gure gauzak dira. Barrura goaz lo egitera, bihar etxera bueltatu behar gara eta.

Bakoitza bere gelara joan zen, eta seguraski, sorginekin amets egin zuten.

Goizean agur esan zuten, eta hurrengo akelarrera bueltatuko zirela esan zuten. Izan autobus geltokira joan zen eta Paula kotxera. Paulak aurreko eguneko abesti guztiak abestu zituen bidean. Etxera heldu zenean oso pozik zegoen.

—Kaixo, Paula! —esan zion amak. Zelan pasatu duzu? Gustatu zaizu?

—Ama, bidaia ahaztezina izan da!!!

OINATZ MISTERIOTSUAK

Ane Ulacia Calzacorta
La Salle Bilbao HLBHIP

Egun eguzkitsua zen, larunbata, eta lagunekin geratu nintzen mendira joateko. Artxandara joatea erabaki genuen; beraz, bokata eta edaria hartu eta martxan jarri ginen.

Pozik eta kantuan abiatu ginen, baina... bat-batean, erori egin ginen!

Jaiki ginenean, zulo batean geunden, orduan, handik nola atera pentsatzen hasi ginen. Momentu hartan oinatz handi baten barruan geundela konturatu ginen.

Zailtasun handiz eta batak besteari lagunduz, irten ginen.

Izututa geunden, baina oinatzari jarraitzea erabaki genuen. Oinatzaren ondoan loreak zeudela ikusi genuen, horiei jarraituz, Guggenheim museora iritsi ginen.

Han bukatzen ziren oinatzak eta ingurura begiratu genuen.

Pupiri loreak falta zitzaizkiola ikusi genuen. Hurbildu ginen eta aurpegira begiratu genion.

—Keinu bat egin digu! —oihukatu genuen.

Orduan, konturatu ginen txango bat egin zuela mendian, guk bezala, ARTXANDATIK BILBO OSOA IKUSTEKO.

Hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila Bilboko plazan!



EGIN AHAL DENA

Peio Zabalegi Redondo
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Errege eguna zen. Jonek opari asko jaso zituen, horietako bat kometa bat izan zen. Eguraldi ona egiten zuenez, Jon eta bere gurasoak hondartzara joan ziren kometarekin jolastera. Oso egun polita zen. Jon, aita eta ama pozik zeuden, kometarekin jolasten. Baina bat-batean eguna okertu zen.


Itsasotik gertu zeudela animalia bat ikusi zuten. Izurde bat zen, itsasotik kanpo. Plastikoz inguraturik zegoen, laster hil egingo zela ematen zuen. Jonen ama albaitaria zen eta saiatu zen izurdea salbatzen. Izurdea inguratzen zuten plastikoak kendu eta itsasora bueltatzen saiatu ziren beste pertsona batzuen laguntzaz. Baina alferrik izan zen; izurdea hil zen.

Jon triste geratu zen, negarrez. Ez zuen inoiz izurde bat ikusi, eta ikusten zuen lehenengoa bere aurrean hil zen. Aitak esan zion errua itsasoan dauden plastikoena dela, eta plastiko horiek guk botatzen ditugula.

Hori entzun eta gero, Jonek plastikoak itsasora ez botatzea erabaki zuen. Mutiko bat besterik ez zenez, bere gurasoek esan zioten ezin zuela gauza handirik egin, mundu osoan gertatzen den arazo bat delako. Hala ere, munduan bizi garen pertsona bakoitzak gauza txiki bat egiten badu, gauza handi bat lortu ahal dela azaldu zioten eta, horregatik, Jonek plastiko gutxiago erabiliko zuela erabaki zuen.

Gabonetako oporrak amaitu eta Jon ikastolara bueltatu zen. Han hondartzan gertatutakoa azaldu zion bere lagunei, baita plastikoari buruz hartu zuen erabakia ere. Baina bere lagunek ez zioten kasurik egin.

Arratsalde horretan Jon supermerkatuara joan zen bere gurasoekin. Erosketak egiten zenbat plastiko erabiltzen genuen ikusi zuen: esne botilak, jogurtak, plastikozko poltsak...



Supermerkatuan plastiko asko erabiltzen zenez, Jonek planetari laguntzeko aukera bat ikusi zuen. Erosketak egiten zirenean plastiko gutxiago erabil zitekeela ikusi zuen, adibidez, poltsak etxetik eramanez edo janaria erosteko tuperrak erabiliz.

Orain, bere gurasoak supermerkatura joaten direnean beti eramaten dituzte poltsak eta tuperrak etxetik. Jon pozik dago bere familiak plastiko gutxiago erabiltzen duelako, eta horrela, itsasoa garbi mantentzen laguntzen dute. Ikastolara joaten denean, Jonek bere lagunak animatzen ditu gauza bera egitera. Munduko familia guztiek plastiko gutxiago erosten badute, itsasoa eta planeta garbitzen lagunduko dutela esaten die.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



TALDE BAT GARA

Elene Elorriaga Legarreta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Gela handia da, handi samarra esango nuke nik. Pixkanaka-pixkanaka sar-
tzeko eskatu digute pilaketarik ez egiteko.
Haizekoak bi taldetan banatu dira, eta laster haien artean ere egu-
rrezkoak: txirulak, horren ahizpa txikia den piccoloak eta klarineteak adostu
dute eszenatokiaren atzeko aldera joan behar dutela, zirkunferentzia erdiaren
atzeko lehenengo lerrora, hain zuzen ere. Metalezko horien neba-arrebak,
tronpa, tronpeta eta tronboia, jarraian, atzean kokatu dira. Oraindik leku ezku-
tuagoa geratzen da horien bizkarretan, eta hara zuzendu dira poliki-poliki tinba-
la eta txindatak.

Erdiko lekurik zabalena harikoentzat gordeta dago. Biribil erdia, gazta for-
mako lau zatitan banatuta dago. Ezkerreko zati biak hari familiako txikitxoenen-
tzat eta soinurik zorrotzena dutenentzat gordeta dago.

—Nortzuk izango dira?

—Biolin maiteak.

Biolin ugari dago gure orkestran. Denak lagunak dira, baina horien artean
badago erregina sentitzen dena. Egur distiratsuz egina dago eta altzairu-harizko
korda finak ditu.


Biolinek, biribil erdiaren beste partea haien lehengusuekin partekatu dute,
biolarekin, biolontxeloarekin eta kontrabaxuarekin, hain zuzen ere.

—Beti esan digute familia anitza garela!



Zuzendaria prest dago. Batuta goitik behera mugitu du eta piezari hasiera eman dio. Ondoren, instrumentu batzuei sarrera eman die. Dena primeran doa. Bakoitzak bere denborak eta bere partiturako tarte isilak errespetatu ditu.

Batutak esan digu piccola ezik beste guztiok geldirik egoteko. Beraz, soinurik zorrotzena entzuten gabiltza. Berehala, haizeko senitartekoek lagunduta soinu freskoa etorri zaigu. Jarraian, zuzendariak harikoei sarrera eman die, eta beste guztiak mutu gelditu dira. Oso doinu aingerutarra entzuten gabiltza. Tinbre indartsutik apalera moteltzeko agindu die batutadunak, tinbalaren txanda delako. Baina erregina sentitzen den biolin txikiak ez du jaramonik egin, eta tinbalaren mintz gaineko kolpe sikuak guztiz hondatu ditu.



Entsegua bukatu da! Zuzendariaren begirada zorrotzak argi utzi du taldearen desadostasuna.

Kontzertua hasiera doa. Biolin txikiak ez du bere arku aurkitu. Alde guztietara begiratu du horren bila. Bere familiakoen poseak ikusita, arku ezkutatu diotela konturatu da. Mendekua hartu diote, baina gaur, noski, ezin die ezer aurpegi-ratu. Behingoz konturatu da zein gaizki jokatu duen lehenago tinbalarekin.

Oraingoan bai, melodia ederra sentitu dela! Liluragarria esango nuke nik.



EGUNEROKO ESAMESAK

June Elola Garcia
Maestro García Rivero HLHI

Urtarrilaren 16a

Bikain! Gaur oso pozik nago, Mikoleta lehiaketan parte hartzeko paperak eta informazioa ekarri dizkigute. 2020ko otsailaren 28an bukatuta eduki behar dugunez, presaka ibili beharko dut. Egia esan, asko itxaron dut egun hau heldu arte. Niri txikitatik gustatu izan zait idaztea; nire ipuinak jendeak irakurtzea gustatuko litzaidake, eta hau izan daiteke nire ipuinak irakurtzeko aukera handi bat.

Normalean, eskola eta gero, liburutegira joaten naiz, liburu pare bat edo hartu eta etxera heltzean tableta hartzen dut ordu erdi bat, ondoren irakurtzen dut afaltzeko ordua heldu arte.

Baina aste honetan aldaketa batzuk egin beharko ditut:

1. Etxera heltzean, logelan sartu eta etxerako lanak egin eta gero, liburua-ekin jarriko naiz.
2. Liburutegitik hartzen ditudan liburuak behin baino gehiagotan irakurriko ditut.
3. Ez dut tableta hartuko 20 hitz gutxienez idatzi arte.
4. Oraindik ez dakit, baina geroago bururatuko zait.

Urtarrilaren 17a

Orain nire gelan nago. Patio ordua da, baina irakasleak gelan geratzeko baimena eman dit. Astelehenean txango batera joango garenez, ez dugu idazteko denborarik izango eta, horregatik, utzi dit geratzen.

Oraindik ez dakit zeri buruz izango den nire ipuina, oso zaila da ipuin bat idazten hastea.

Urtarrilaren 18a

Klase ostean etxean nago. Nire gurasoak eta anaia biolina jotzera joan dira, eta hemen nago bakarrik, nire buruaren aurrean zer egin jakin gabe. Handik gutxira, lagun batzuekin geratu naiz Bolintxura joateko. Heldu gara, hala ere, zerbait arraro dago hemen; zuhaitzak gaixorik daudela ematen du, hosto guztiak zuloz beteta dauzkate, gainera, belarrak kolore grisa dauka. Ibiltzen hasi gara eta ikusi dugu kartel bat zuhaitz batean iltzatuta; ohartxo batek kartel horretan azaltzen du zuhaitz guztiak moztu eta errepide berria egingo dutela. Hau irakurrita, harritura geratu gara hango guztiok.

Eta horrek ekarriko lukeena da... Ez dago zalantzarik, kotxe gehiago eta airean kutsadura areagotzea. Zuhaitzak hil eta zuhaitzak hil, haien gainean errepide gehiago eraikitzeke!

Etxera itzuli naiz bazkaltzeko ordua heldu delako, baina oraindik bakarrik nagoenez, plan bat pentsatzen hasiko naiz.

Urtarrilaren 19a

Igandea denez, ez dut ia ezer idatziko. Amamaren etxera joango naiz eta nire lehengusinekin egongo naiz.

Urtarrilaren 20a

Heldu naiz etxera. Egun osoa pasatu dugu hortik. Txangoan Kasildako parkera joan gara; han zuhaitz eta landare pila zeuden, eta fijatu naiz errepide ondoan zeuden zuhaitzak Bolintxun ikusitako zuhaitzak bezala zeudela. Baina basoan sartuz gero, berdeak eta polit-politak ziren. Zerbait egin behar dugula badakit. Baina zer? Maisuarekin hitz egin dut eta nire teoria babestu du. Ideia batzuk eman dizkit.

1. Kartelak jartzea informatzeko jendea eta Bolintxurekin egin nahi dutenaz kexatzeko.
2. Manifestazio bat egitea.
3. Udaletxean kexatzea.
4. Prentsarekin hitz egitea.
5. GKE ekologista batekin hitz egitea. Uste dut guztiak egiten saiatuko naizela.



Urtarrilaren 21a

Gaur eskolan maisuarekin hitz egin dugu, eta kartel bat egiten hasi eta amaitu dugu patio orduan. Ume askok ikusi dute, gurekin ados daude. Fotokopiak egin nahi ditugu, eskola osotik jartzeko, baina horretarako, baimen asko behar ditugu, baita denbora gehiago ere.

Urtarrilaren 22a

Maisu eta irakasle batzuk konbentzitu ditut kartelak jartzeko, eta ez hori bakarrik, gela batzuetara ere joan gara gaiak hitz egitera. Umeei galdera asko egin dituzte, baina, azkenean, gurekin ados zeuden guztiak.

Gaur, eskola eta gero, nire lagun batzuk eta haien gurasoak udaletxera joan gara manifestazioa prestatzera. Baimena eman digute, bihar 05:00etan Bolintxu ondoan.

Urtarrilaren 23a

Heldu naiz etxera. Manifestazioa arrakastatsua izan da. Jende asko joan da eta beste ikasle nagusiago batzuk pentsatzen hasi dira zer egin Bolintxu salbatzeko. Uste dut dagoeneko nire lana amaitu dela, baina badaukat berri on bat: orain badakit zertaz joango den nire ipuina.

AMETSAREN BILA

Maren Jia Yuan Garabieta García
La Salle Bilbao HLBHIP

Duela urte batzuk, harrien gainean eserita, ile luzeko neska bat zegoen. Hai-zeak bere ile beltza mugitu eta aurpegi borobila estalgabetzen zuen. Begi distiratsu batzuek itsasora begiratzen zuten bitartean, sudur txiki eta zorrotzak itsasoaren aire hezea arnasten zuen. Bere ezpain arrosak eta finak geldi-geldi zeuden, burmuina pentsatzen eta pentsatzen ari zen bitartean. Neskaren beso mehek belautzen gainean atsedean hartzen zuten. Baina nor da pertsonaia misteriotsu hori?

Bada, ni neu! Evelyn dut izena. Costa Bravako kala txiki batean jaio nintzen, Cala S'Alguer izenekoan... Baina txiki-txikitatik beste leku batzuk ezagutzeko gogo izugarria izan dut. Adibidez, mendi desberdinak eskalatzea eta Everestera igotzea. Hobe dena kontatzen badut...

Istorio hau 2018ko maiatzaren 28an hasi zen, nire hamazazpigarren urtebetetzean. Jaio nintzen kalan zeuden harrietan eserita nengoela, mendietan pentsatzen hasi nintzen ni. Inoiz ez nuen mendirik ikusi. Altuak eta puntadunak zirela entzunda neukan, behealdean berde-berdeak eta tontorrean elur zuriko geruza lodiz estalita. Nire bizitza osoan ura, arrainak eta kalak ezagutu izan ditudan arren, itsasoa ez zen nire gustukoa. Belarra, lokatza, animaliak eta mendiak nituen gustuko, eta leku horiek ezagutzeko gogo izugarriarekin nengoen. Orduan, une hartan, nire bizitzako erabakirik handiena hartu nuen.

—Aita, mundua nire kabuz esploratzera joan nahi dut —esan nion beldur samar. Ez nintzen beldur aitarekin hitz egiteko, baina banekien aitaren iritziak nahiko tradizionalak zirena.



Begirada ilundu zitzaion, eta segundo batzuk pentsatu eta gero, hau esan zidan:

—Alaba maitea, zuk badakizu zeintzuk diren gure ohiturak... Neskak etxe-ko zereginez arduratzea! Emakumeak esploratzera joatea ez dago batere ondo ikusita. Hori ezinezkoa da! —azaldu zidan aitak.

—Eta gizonak ... janaria lortzea eta lan egitea. Badakit, aita —errezitatu nuen gogorik gabe. Baina ezin ditut ohiturak aldatu? —galdetu nuen itxaropen izpi fin-fin batean sinetsiz.

—Evelyn! Nahikoa da! Ohiturak ezin dira aldatu, eta are gutxiago neska batek! —oihu egin zidan haserre bizi—. Zoaz zure logelara oraintxe bertan! Eta debekatzen dizut hitz egitea edo pentsatzea pentsamendu burugabe horretan!

Aita gorri-gorri zegoen... Tomate bat zirudien! Gainera, ile guztiak punta-puntan jarri zitzaizkion eta amorru bizi zegoen, dardarka. Ni ere haserre samar nengoen. Zergatik ezin nuen esploratu? Neska bat nintzelako? Zergatik ez nituen gizonek zituzten eskubide berdinak?

Logelara ziztu bizi joan nintzen, urrats luzeak emanaz. EZ NUEN AMORE EMANGO, ez horixe! Ni ez naiz horrelakoa. Amets handi eta polit bat daukadanean, amets hori egia bihurtzeko borrokatzen dut. Anbizio handiko neska naiz, eta gauza bat lortu nahi dudanean, ez naiz ezer egin gabe geratzen... Ez naiz geratzen ametsek zelan ihes egiten duten ikusten eta negar egiten. Bueno, baina hau ez da kontua.

Orduan, nire logelan, berokirik beroena, botak eta janari pila hartu eta dena bizkar-zorro handi baten barruan sartu nuen. Nire oheko oinera soka lodi

bat lotu eta leihotik behera kontu handiz jaitsi nintzen. Lurrera arazorik gabe iritsi nintzen.

Denbora tarte bat pasata, aita nire logelara joan zen barkamena eskatzeko asmoz. Baina soka ikustean...

—EVELYYYYYYYYNNN!!! —garrasi egin zuen.

Ni oso urrun nengoen. Kamioneta baten barruan, Gorbeiarako bidean. Gau oso bat igaro nuen hor sartuta. A ze klaustrofobia! Bueno, kontua da bizirik iraun nuela leku itxi eta ilun horretan.

Hurrengo egunean, Urkiolako parke naturalean nengoen! Parke miresgarria zen, benetan. Mendiz inguratutako eta txorien kantuz betetako leku izugarria. Han konturatu nintzen marrazten nituen mendiak ez zirela errealak. Mendi batzuk berde-berdeak ziren, baina beste batzuk, ordea, harrizkoak. Denetarik zegoen, eta neguan, ziur aski, elurtuta egongo ziren. Ibilalditxo bat egin ondoren, Gorbeiarantz abiatu nintzen.



Behin Gorbeiaiko behean egonda, pixkanaka-pixkanaka igotzen hasi nintzen. Zelako ilusioa! Tontorreraino zitzu bizian iritsiko nintzen! Bai zera! Ez zen hain erraza mendi bat igotzea. Mendia igotzen ari nintzela, lehenengo aldiz gauza sinestezina gertatu zitzaidan... IA-IA AMORE EMAN EGIN NUEN! Bueno, normala da, ezta? Ia janaririk gabe gelditu nintzen, hotz izugarria neukan, oinak minduta nituen eta otsoen uluak entzutean hotzikarak etortzen zitzaizkidan.

Baina lehen esan dizuet, ezta? Ez dudala inoiz (bueno, ia inoiz) amore ematen. Orduan, atsedetik gabe ibiltzen jarraitu nuen... Ia goi-goian nengoen! baina ezin nuen tontorreraino igo, azken zatia oso arriskutsua zelako... Dena den, nire

ametsa lortu nuen! Gainera, ez nuen esfortzurik egin behar izan jaisteko, salbamendu helikoptero bat hortik igaro zelako, eta ikusi nindutenean etxera ekarri ninduten. Zer gertatu zen handik aurrera?

Gauza ederrak gertatu ziren. Hasteko, ni eta nire gurasoen arteko erlazioa sendoago bihurtu zen. Bigarrenez, kalako ohiturak aldatu ziren. Hirugarrenez, Gorbeiarra berriro joateko ilusioa mantendu nuen... Eta azkenik, Nepalera, Everestera igotzera gonbidatu ninduten. Oso pozik nago! Ametsetan!

Eta hona hemen nire istorioa. Azkenean, merezi izan du hainbeste esfortzu egitea, nire ametsik handiena lortu dudalako.


*«Zure ametsa errealitate bihurtu baino lehenago,
amets egin behar duzu»*

Abdul Kalam, politikaria.

ZURI GLOBULUAREN BIDEA

Nile Garitano Lafont
Deustuko Ikastola IPI


Kaixo! Ni Mikel naiz eta niretzat oso garrantzitsua da hockeya, asko gustatzen zait. Nire barruko bakterio, zelula eta hainbat organismok hockeyan jokatzeko dute. Baina, batzuetan, arazoak izaten dituzte: hau da Zuri globuluaren istorioa.




Zuri gorputzeko organismorik trebeena da hockeyan, bere lagunik onenaren aurretik: Gorri globulua. Zuriri zainetako hockey pistetan jokatzeko gustatzen zaio, baina behin arterietako pistetan jokatzeko bururatu zitzaion. Han oso jokalariek onak jokatzeko zuten: *Ogimami* (Mikel izeneko baten bokatatik etorria dela diote), *Txoririzo* (hura ere bokatatik etorria) eta *Txokolate* (Mikelen saria jarrera ona izateagatik), Zuriren gustukoena.

Zurik Gorri arterietan hockeyan jokatzeko proposatu zion, baina Gorri zoratuta zegoela erantzun zion, oso arriskutsua zela, ez baitzekien non bukatzen

zuten jokalaria haiek. Zurik ez zuen bere laguna mindu nahi, horregatik, ez entzurenarena egin zuen, eta gauean, Gorri lo zegoen bitartean, arterietara abiatu zen.



Arterietan jokatzen ari zela, zerbaitek bere aurkariak beherantz bultzatzen zituen. Zurik, kezkatuta, nora zihoazen galdetu zien, baina ez zuten erantzuten, beraz, Zurik, bi aldiz pentsatu gabe, aurkari baten eskua hartu zuen eta haiekin batera desagertu zen. Bat-batean, organismo asko pilatu ziren: *Sagarar*, *Okelala*, *Arrainan*... Kontua da, guztiak pilatuta zeudenean ahots batek hitz egin zuela: «Hurrengo geldialdia, GIBELA». Zurik ez zuen ezer ulertzen, bazekien zer zen Gibela, urdailaren gainean zegoen hiri handi bat baina... Zergatik zihoan hara? Berak ez zekien *gibelastoz* hitz egiten!



Bitartean, Gorri gosaltzen ari zen lasai-lasai, baina Zuri bisitatzea bururatu zitzaionean konturatu zen... Ez zegoela! Zorionez, Gorrik bazekien non zegoen: digestio-aparatuaren bidea egiten ari zen. Gorri aztoratuta zebilen, baina bat-batean ideia bat izan zuen. Jarrai dezagun Zurirekin:

Zuri Gibelerako bidean zegoen, eta heldutakoan harrিতa gelditu zen; han organismo guztiak jokatzen zuten hockeyan, baina berezitasun bat zegoen: euria ari zuen denbora guztian, baina ez zen edozein euri zaparrada bezalakoa, ura zulo batzuetatik ateratzen zen! Gainera, hori gutxi balitz, noizbehinka jokalariei hautsaren antzeko zerbitu ateratzen zitzaien, eta hodi ezberdinetatik desagertzen ziren. Apurka-apurka jokalariei kolorea apaltzen zitzaien.

Zurirekin batera bidaiatu zuten lagunak ere jokatzen hasi ziren, baina Zuri ikaratuta, ertz batean eseri zen. Ordu erdi inguru igarota Zuri loak hartu zuen. Baina, orduan, beste ordu erdi bat igarotakoan, Zuri esnatu egin zen; orduan, berriro ere zerbaitek bultzatu egin zituen jokalaria, izan ere, une horretan gauza ezberdina gertatzen ari zen: une horretan bera ere bultzatua zen!

Une horretan bidea ezberdina zen: alde batetik bestera zihoazen denbora guztian, bueltaka, gora eta behera zebiltzan. Bat-batean, berriro ere ahotsak hitz egin zuen: «Hurrengo geldialdia, URDAILA».

Orain jarraitu dezagun Gorriekin: Gorriren ideia zen apurka-apurka digestio aparatutik jaistea, eta Zurirekin elkartutakoan, goranzko bidea hartzea. Hara abiatu zen Gorri globulua bere lagunaren bila.


Zuri inoiz baino kezkatuago zegoen, bere amak (Zurina globulua) beti kontatu izan zizkion hango gertakari harrigarriak: han sartzen zirenak bata bestearen kontra metatzen ziren eta uzkuratzen hasten ziren (Pasarasa jokalariaen antzera), baina hori gutxi balitz, etanol eta aspirina deitutako substantzia batzuk xurgatzen zituen.

Handik bi minututara han zegoen Zuri, Urdailaren erdian ikaratuta ikusitako egoeraren ondorioz. Jokalaria jokatzen hasita zeuden, baina batzuk lurrera erortzen ziren, baita desagertzen ere. Nahiz eta aspirina xurgatuta izan, Zurik ez zuen airean etanolik ikusi. Agian, Mikel izeneko hori «umea» deitutako zerbeit delako (edo hori diote). Agian, umeen gauza horiek ezin dute etanolik kontsumitu! Bat-batean Zurik konortea galdu zuen.

Zuri bere onera itzuli zenean, ez zituen begiak zabaldu, Pankrearako bidean egongo ote zen beldur zelako. Baina, zabaldu zituenean...

Gorriren besoetan zegoen, aldapa gogor bat igotzen. Zurik ezin zuen sinestu, baina pozik zegoen; oso-oso pozik. Kontua da Gorri hitz egitera zihoanean Zurik loak hartu zuela, Gorrik ondo ulertu zuen; gau osoa eman baitzuen gora eta behera!

Etxean zeudela, Zuri esnatu egin zen. Zurik galdera asko zituen: noiz konuratatu zen bera ez zegoela, nola aurkitu zuen... Gorrik zoramena hautemanda hasieratik kontatu zion dena: bere ohea hutsik aurkitu zuela, Gibelera eta Urdailera joateko hartu behar izan zituen bide zidorrak eta azkenik, sorpresa bat... Gibelean aurkitutako zelula baten istorioa kontatu zion, baina hori ez zen edozein zelula, zelula urdin bat baizik! Hasieran, Zuri harritu egin zen Gorrik zelula bat maskota izendatu zuela esan zionean, baina ikusi zuenean dena ulertu zuen. Hain zen txikia eta polita... Urdin deitu zuten: Urdin zelula.



Orain Zurik zainetan jokatzen du soilik eta ez du beste arazorik izan. Gerroztikako berririk ez dakit nik.

Amaiera.

GABIREL OTSOA

Gabriel Minguez Díez
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Gabirel dut izena eta otso euskalduna naiz. Gorbeia mendian bizi naiz nire familiarekin: aita, ama eta anaia. Nire bizitza oso ona eta arrunta da, egunero «Otsoen ikastolara» joaten naiz nire lagunekin ikastera. Han ikasgai desberdin pila bat daukagu. Adibidez:

1. **EHIZA:** ikasgai honetan ikasten dugu zelan egin dezakegun ehiza, baka-rik bagaude edo taldeka. Ikasgai hau oso teknikoa da eta basoan zehar praktikatzen dugu. Kontu handiz ibili behar izaten dugu basotik, batzuetan gizaki mendizale batzuekin ez topatzeko. Oso astunak dira eta ezkutatu behar izaten dugu.
2. **BORROKA:** ikasgai hau izugarri gustatzen zait. Nire lagunekin borrokatzen dudalako eta oso dibertigarria delako. Beno... «Maisu Hartza» estresatzen denean teoria ikasi behar izaten dugu, eta hori ez zait batere gustatzen.
3. **LANDARIS-ZUHAITZIS:** janaria, belarrak, fruituak eta abar ikasten ditugu. Nire amarentzat ikasgai hau oso garrantzitsua da, bere izeko Bego fruitu txar batzuk jateagatik hil egin zelako, eta noski, amatxo horrelako gauzen beldur da.
4. **KOLOREDUNOK:** geu, otso guztiak, grisak eta beltzak gara. Gure irakasleak esaten du otso beltz bat ikusten badugu, konturatu behar dugula otso hori ez dela hemengoa. Beste leku batekoa izango dela, hau da, gipuzkoarra edo Iruñekoa... Hemendik horrelako bat ikusten badu-

gu, lagundu behar diogu desagertzeko zorian daudelako, eta gure otso familiak babesa emango dio. Gehien gustatu zaidana izan da jakitea niri bezala haiei ere uluka egitea asko gustatzen zaiela.

Esan dudan moduan, nire bizitza nahiko normala da, familiarekin bizi, jan, jolastu eta lo egiten dut. Gure familia Gorbeiaiko taldearen barruan dago. Gau batzuk ihes egiten dugu gure kobazulotik ilargia ikustera, eta uluka hasten gara auzokideak esnatzeko, kar kar kar...

Behin batean, uluka-gauaren horietako jai batean zarata batzuk entzuten hasi ginen.

—Entzun! Hor daukagu afaria! —esan nion nire anaiari.

Basoan zehar sartu ginen oihuen bila. Bazirudien animalia baten negarrak zirela. Orein bat aurkitu genuen lurtean etzanda. Gure aukera zen gure lehenengo afaria etxera eramateko. Prest geunden oreina hiltzeko eta... Bat-batean aita agertu zen:

—Itxaron semetxook! Begiratu ondo oreina! Gizakiaren tranpa batean erori egin da, eta badirudi orain dela gutxi oreinkumea izan duela. Hil egin beharrean, lagunduko diogu tranpatik askatzeko.

Eta horrela egin genuen, tranpatik atera eta lagundu genion bere kumetxoekin elkartzen. Oso beldurtuta zeuden biak, baina berriro elkarrekin egonda guztion bihotzak alaitu ziren.

Korrika etxera itzuli ginen amari gertatutakoa kontatzeko asmoz, asko ikasi genuelako gau horretan.



Egun horretatik aurrera, egunero joaten ginen oreinaren kumea ikustera, eta hilabeteak pasatu ahala lagunak egin ginen. Ilbeteko gauetan uluka egitera joaten ginen eta gurekin oreinkumea ere etortzen zen. Berak guri bere basoko mundua erakutsi zigun eta beste ikuspuntu batetik hasi ginen basoa ezagutzen. Denon artean konturatu ginen bizitzaren ziklo berberean geundela sartuta, eta gero eta aberatsagoa egiten zitzagula.



NIRE MUNDUAN

Saioa Artetxe Sanz
Maestro García Rivero HLHI

Akane dut izena, ile marroiko 11 urteko neska arrunta naiz. Arratsaldeko hirurak ziren eta kaletik paseatzen nenbilen, bat-batean, katu beltz bat ikusi nuen taparik gabeko estolda batetik erortzen. Korrika joan nintzen laguntzera, baina katua jada barruan zegoen. «Lagundu beharra daukat! ezin dut hor utzi!» pentsatu eta estolda barrura sartu nintzen. Ipurdiz erori nintzen estolda barruko zoru zikinera, hau lurreratze kaxkarra! Katuak arraro begiratu zidan.

—Bikain, orain biak gaude harrapatuta! —esan zuen katuak ironiaz.

—Zer? Hitz egiten duen katua? —esan nuen harrituta.

—Bai, Xinxino dut izena eta zu gizaki tuntuna zara, nola bururatu zaizu estolda batean sartzea? —jarraitu zuen katuak zakar.

—Aizu! errespetu apur bat, zu laguntzeko sartu naiz hemen —esan nion.

—Bai, baina orain ezin nauzu lagundu —jarraitu zuen katuak.

Katu horrekin kokoteraino nengoen, lurretik altxatu eta ibiltzeari ekin nion.

—Itxaron, nik badakit nola irten! —esan zuen katuak niregana hurbilduz.

—Lehenago esan behar zenuen! —esan nion nik.

—Estoldan zehar jarraituz gero, diamantezko loreen larre batera iritsiko gara, han, harribitxien erreginaren gaztelua dago, horra joan eta proba batzuk gainditzen badituzu, estoldatik irteten utziko dizu —azaldu zidan katuak.

Katua nire sorbaldan igo eta ibiltzen jarraitu genuen, minutu askoren ondoren, larre koloretsu batera iritsi ginen.

—Ua! Ze polita! —esan nuen korrika eginez.

Diamantezko loreena egia zen! Diamantezko lore batzuk hartu eta poltsan sartu nituen.

—Eh! Hori lapurreta da! —esan zidan katuak.

—Ez, noski! Lore hauek naturak sortuak dira, nahi ditudan guztiak har ditzaiket —esan nion gehiago hartuz.

Gaztelura iristean atea jo nuen, zerbitzari batek ongietorria eman zigun. Jarraian hau esan zigun:

—Kontuz, erreginak ez die estimu handirik izaten kanpoko gizakiei.

Elkarri begiratu genion, Xinxino lasai-lasai zegoen, noski, bera ez da gizakia.

—Erreginaren tronuaren aretoan itxaroten dizue, jarrai iezadazue, mesedez —jarraitu zuen zerbitzariak.

Tronuaren aretora iritsi eta tronura begiratzean, neskaxa ilegorri eta pekatsu bat ikusi genuen! Ez al zen gazteegia erregina izateko?

Gu han geundela ikustean gureganantz korrika etorri zen.

—Kanpoko neska bat! ezin dut sinetsi! —egin zuen garrasi jada gure ondoan.

Ni aztertzen eta usaintzen hasi zen, deseroso nengoenez, elkarrizketa bat hasten saiatu nintzen:

—Barkatu, zu al zara erregina?

—esan nuen.

—Ez, ni printzesa naiz, ama etxetik kanpo dabil, erregina lanak egiten... —erantzun zidan aspertu aurpegia jarritz.

—Xinxinok eta biok gure burua aurkeztu eta gure istorioa kontatu genion: estoldatik erori ginela... Orduan, printzesak jolas berri eta dibertigarri batzuk erakutsi zizkigun.

—Beraz, horretara jolasten zarete lurpeko umeak? —galdetu nion.

—Beno... ni ez hainbeste, ez dut inoiz lagunik eduki, denak printze eta printzesa aspergarriak dira, ez dute jolastea gustuko —esan zuen triste—. Baina orain badut lagun bat: zu —hau esan eta besotik heldu zidan. Bat-batean, atea ireki zen eta emakume potolo bat sartu zen.

—Nor da hau? Eta zer egiten du nire alabarekin? Zigor handia jasoko duzu bera bahitzera etorri bazara... —esan zuen haserre.

—Itxaron, ama, azaldu ahal dizut! Neska hau laguntza bila etorri da... eta lagunak egin gara... —azaldu zion Mitxiko printzesak.

—Lagunak? Zu, neska zikin eta pobrea? Hori ezin da horrela izan —esan zuen erreginak.



—Baina ama! Bera lagun ona da, ez da beste printzipe eta printzesak bezalakoa, aspergarri hutsak dira eta... —jarraitu zuen Mitxikok.

—Erregina, estoldatik irteteko laguntza bila etorri naiz, nola irten ahal naiz hemendik? —galdetu nion errespetuz.

—Eh, ez hain azkar... Hiru proba gainditu beharko dituzu lehenengo... Eta gainditzen badituzu, etxera itzuliko zara —esan zuen erreginak.

Erreginak jarraitzeko eskatu zigun, soro polit batzuetara iritsi ginenean, erreginak lan egiteko eskularru batzuk eman eta hau esan zidan:

—Bueno... Ordubete daukazu soro honetako patata-landare guztiak jasotzeko... Hau izango da zure lehenengo proba.

«Baina nola egingo dut hau guztia ordubetean?» pentsatu nuen, Mitxikok kezkatuta begiratu zidan.

—Bueno, modu bakarra dago hemendik irteteko... —esan nuen eskularruak jantziz.

—Animo, Akane! —esan zuen Mitxikok irribarrez.

Belarrak lurretik ateratzean konturatu nintzen, patatak irten beharrean, mota guztietako harribitxiak irteten zirela, hamar minutu geratzen ziren, oso gutxi geratzen zitzaidan... Belar eskukada bat gelditzen zitzaidan ateratzeko erreginak denbora amaitu zela esan zidanean. Belar pixka horren aurrean jarri eta belarra kentzen saiatu nintzen.

—Zer gertatzen da? —esan zuen erreginak nire bizkarrera begira.

—Ezer ez, ezer ez... harramazka besterik ez dut egin... —erantzun nion belarra kenduz.

—Ongi, orain bigarren probara joango gara... —esan eta ibiltzen hasi zen.

Metalezko gela batean sartu ninduen eta erreginak leihatila batetik hau esan zidan:

—Ate horren atzean, gure erreinuko piztia dago, horri irabazi beharko diozu... Eta ezin duzu ezer erabili!

Oraingoan bai, galduta nengoen! Atea irekitzean, herensuge itxurako lehoi hegodun batek nire gainera salto egin zuen, zoroen antzera korrika egiten hasi nintzen alde batetik bestera.

Azkenean lehoia, zorabiatuta, niregana korrika etorri, nik salto egin eta paretaren kontra eman zuen buruan, kolpeak konorterik gabe utzi zuen eta gela horretatik bizirik irtetea lortu nuen.

—Orain, etxera bidaliko zaitut —esan zuen erreginak.

—Eta hirugarren proba? —galdetu nion harrituta.

—Nire alabaren lagun egitea zen, baina hori jada lortu duzu... —jarraitu zuen.

—Bueno, agur Mitxiko! —esan nuen bera besarkatuz.

Mitxiko agurtu ondoren, erreginak tren arraro batean sartu ninduen, eta honela, Xinxino eta biok etxera bueltatu ginen.

*Miig
Koleta*

*Miig
Koleta*

*Miig
Koleta*

*Miig
Koleta*

*Miig
Koleta*

*Miig
Koleta*

*Miig
Koleta*

*Miig
Koleta*



C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



HIL ARTE, BIZI!

Kattalin Begoña Marin
Artxandape Ikastola HLBHIP

Euria zarra-zarra ari zuen arratsalde hartan. Leihotik begira nenbilen; leioa lurrunduta zegoen, kanpoko hotz ikaragarriaren eta etxe barruko bero atseginaren arteko kontrasteak sortuta. Eraikin altuen artean ikusten zen zeru zati txikia, gau ilun batean bezala zegoen, oso beltz. Beraz, etxerako lanak egiten ari nintzen. Bat-batean, aita heldu zen lanetik. Ez zuen aurpegi onik, begiak heze zituen, ahul zegoen. Beregana hurbildu nintzen, kezkatuta, harrituta. Aulki batean eseri nuen, eta edalontzi bete ur eskaintzen nion bitartean, ea ondo zegoen galdetu nion:

—Ni ondo nago —esan zuen negarrez, zotinka.

—Eta, orduan, zer gertatzen zaizu? —galdetu nuen nik.

—Niri ez zait ezer gertatzen —jarraitu zuen kontatzen—, amonarengatik da.

—Amona? Nola amonarengatik? —galdetu nuen nik oso kezkatu eta harriturik.

—Eki, amona ospitalean dago, istripu larri bat izan du —aitak.

—Baina nola? —nik, negarrari eutsi ezinik.

—Gogoratzen duzu duela aste batzuk amona erresidentzia batera eraman genuela? Bada, bertan zegoela, lorategitik paseatzen, aldapan behera erori eta aldaka hautsi zuen. Zoritxarrez errepidean erori zen, eta justu erresidentziako autobusa pasatu eta harrapatu egin zuen.

Momentuan bertan begiak malkoz lausotu zitzaizkidan. Aitak besarkada luze eta bero bat eman zidan. Nire amona niretzako oso pertsona garrantzitsua zen, nire ama bezalakoa zen. Arazoak banituen, hari kontatzen nizekion, nire sekretuak, nire gertaerak... Ondoan ezagutzen ninduen pertsona zen. Egia esan, aita ez da oso ulerkorra eta, horregatik, berarekin hitz egiten nuen. Nire ama hiruzpalau urte nituela joan zen. Ez naiz ia beraz oroitzen. Aitak dio negar asko egin nuela, baina horretaz ere ez naiz gogoratzen. Hurrengo egunean amona bisitatze-ra joan ginen, ni ikastolatik irten ondoren. Aurreko egunean ez bezala, eguraldia lasai zegoen eta neguan arin iluntzen denez, eguna jada argirik gabe zegoen; eta izarrak, eguzki lore bat txiribita zelai batean bezala, nabarmentzen ziren zeruan.

—Eki maitea —esan zuen amonak ni ikustean, harriturik—, zein ondo ni bisitatze-erara etorri zaren!

—Amona ondo jarriko zara, ezta? —galdetu nion, oso arduratuta—. Ondo jarriko zara, ezta?

—Zaila da hau zuri esatea baina... —saiatu zen azaltzen— Ea, ni ondo nago, baina nire gorputza ez, ulertzen duzu?

—Bai noski, hil egingo zara eta kitto! —nik.

—Ez da hori —berak harritura—. Beno... bai, hori da, sentitzen dut...

Momentuan bertan negarrez hasi nintzen eta amonaren magalean kuzkurtu nintzen. Amona ni kontsolatzen saiatu zen.

—Niretzat ere oso gogorra da mundu honetatik agurtzea, baina nahi baduzu, biok batera egingo diogu aurre egoera honi —esan zidan tonu goxo batekin, zapi bat eskaintzen zidan bitartean.

—Noski, hau gertatu eta gero, zuk ez duzu sufrituko —nik.

—Bai noski sufrituko dudala, niretzat hau zuretzat baino gogorrago da —amonak.

Isiltasun minutu pare bat eta gero, amona berriz ere hasi zen hizketan:

—Nitaz gogoratzen zarenean, ez dut nire gauza txarrak gogoratzea nahi, guk biok bizitako abendura eta pasarte dibertigarriak eta onak baizik. Nik kontatzen nizekizun istorioak eta esaerak, nirekin ikasitako gauza onak gogoratzea espero dut, horrela nire oroitzapen ona edukiko duzu.

—Saiatuko naiz —nik—, baina zer egingo dut nik zu gabe?

Momentu horretan amonari malko bat erori zitzaion.

—Eki, bizitza aurrera doa, ezin duzu gelditu. Aurrera doan heinean, pertsonak, gauzak edo gaitasunak galtzen joango zara, baina beste batzuk aurkituko dituzu.

—Hala ere, ez zaitut inoiz ahaztuko —nik, temati—, ez da egun bat bera ere egongo zutaz ahaztuko naizenik.

—Ahhh... Eki maitea, zein inuzenteak zareten umeak!

—Umeak? Aizu, 14 urte ditudala!

—Barkatu, barkatu! Bada, zein inuzenteak zareten gazteak!

—Benetan diotsut, ez didazu sinesten, ala?

—Ez da ez dizudala sinesten, baina esan dizut, bizitzan jende berria ezagutzen joango zara eta beste batzuk ahazten... Beno, gogoratu esango dizudan hau, oso erabilgarria izango zaizu eta.

—Bai, adi nago zure hitzei, baina ez didazu betiko esaldia esango, ezta?

—Ze esaldi?

—Bada, bizitza bonboi kaxa bat bezalako delako, tokatuko zaizuna zer den ez dakizulako.

—Ze ondo ezagutzen nauzun! Baina beste bat da.

—Ea bada, kontatu!

—Eki, badakizu deabruak gehiago dakiela zaharra izateagatik deabrua izateagatik baino...

—Bai, hori badakit...

—Bada, honekin esan nahi dizut ni oso emakume nagusia naizela eta bizi izan ditudan urte luze guzti hauetan bizitzak gauza asko irakatsi dizkidala...

—Hori ere badakit...

—Beno, gatozen harira, esan nahi dizudana da bizitzan gertatzen den guztia pasatu egiten dela. Gertatzen zaizkigun gauza guztiak, txarrak zein onak, gertatu eta joan egingo dira, gertaera hau ere pasatu egingo da. Gauza txar baten aurrean, ez duzu etsi behar, lehenago edo geroago, gertaera txar hori pasatu egingo delako. Gauza on baten aurrean, berriz, gozatu egin behar duzu, eta momentu egokian gertaera ospatu, bestela, uste baino lehen joango da.


Orduan amonak besarkada bat eman zidan, besarkada goxoa, beroa eta maitasunez bete. Bat-batean, erizaina sartu zen eta bisitarako denbora amaitu zela esan zigun. Ohetik altxatu, amona begietara begiratu eta zera esan nion.

—Eskerrik asko, amona, eskerrik asko guztiagatik.

—Eskerrak zuri ere —erantzun zidan berak—, hauek nire bizitzako hamalau urterik onenak izan dira.

—Agur amona, beti arte.

—Eki maitea, beti arte ez, hurrengora arte!



ASHANTIREN 7 EGUNAK

Jone Rubio Villa
Artxandape Ikastola HLBHIP

Hemen nago nire amama Marilorekin, Ondarroako portutik paseatzen. Aspaldi zin egin nion 14 urte betetzean etorriko ginela. Oinez gabiltzala zerbait ikusi dugu lurrean; koaderno bat da. Amama hurbildu da eta beldurrik gabe hartu du, Musuko itsaso guztiak zeharkatu dituela dirudi. Zabaldutakoan konturatu gara letra ondo ikusten dela, baina ezin izan dugu irakurri, hizkuntza ezezagun batean dagoelako.

Amama Senegalgo lagun batez gogoratu da: Kepa deitzen zioten. Gizon honek lagundu ahalko digu irakurtzen, horregatik, bere bila joan gara.

«Oma» deitutako bere itsasontzi txikian aurkitu dugu. Koadernoak erakutsi diogu. Zabaldutakoan egin du eta zirrara berezi bat sentitu du, hizkuntza hori kirundi dela ikusita. Burundiko hizkuntza da, bere amama Maggiren hizkuntza, horregatik, itsasontzia «Oma» deitzen da, «amama» adiera du kirundi hizkuntzan.

Kepak Ashanti izeneko neska baten egunkaria dela esan digu, Burundin bizi dena, Minagon, zehatz-mehatz. Sartzeko agindu digu, istorioa lasaitasun handiagoz kontatu ahal izateko.



Nire familia

Nire izena Ashanti da, Minagon jaio nintzen, Burundin. Tutsi arrazakoa naiz. Nire zortzi neba-arrebetan gazteena naiz, nire ama eta amamarekin bizi naiz. Nire aitak 3 urte nituenean hil zen, gure bizitza zaila izan zen, baina gure amak erakutsi digu aurrera jarraitzen.

Nire familian dena partekatzen dugu, lo egiteko lekua ere bai. Nik bost neskekin lo egiten dut, mutilek batera, eta nire amak amamarekin, ama bakarrik ez sentitzeko.

Egun arrunt bat Minagon

8:30ean gutxi gorabehera nire ama ikusi dut, kazola bete ur dakarrela, gu garbitzeko eta gosaltzeko. Egunero bezala mantal gorria jantzi dut ikastolara joateko, eta ikastera gogotsu noa. Klaseak bukatu ondoren neba-arrebak eta ni zelaira joan gara lan egitera. Nire ama eta amama goizeko lehen ordutik bertan egoten dira. Aitzurra hartu dut eta lanean jarri naiz. Nire amamak eskatu dit animaliak elikatzeko, hori egitea gogoko dut, horregatik, protestatu gabe egin dut. 21:30ak dira, hain gaude nekatuta hizketan ari ginela loak hartu gaituela.

Gure osasuna

Gaur medikuarenera joatea egokitu zait, urtean behin Gizalde elkarteak mediku azterketa bat egiten du dohainik.

Pisuarekin arazoak izan ditut. Nire herrian ohikoa da hori. Ez daukagu janari nahikorik. Normalean manioka eta babarrunak jaten ditugu, ez da janari orekatua eta, horregatik, izaten ditugu elikadura arazoak.

Medikuan sartzeko itxaronaldiak ez dit utzi ikastolara joaten, baina bai lan egiten.

Ez dut gustuko klaseak galtzea, baina gaur merezi izan du.

Non dago bakea?

Armairuan aurkitu ditut ni txikia nintzeneko argazkiak. Nire aita eta hainbat lagun gurekin zireneko momentu guztiak gogoratu ditut. Eta, bat-batean, ohartu naiz malko bat irristatu zaidala masailean.

Hutuak eta tutsiak aurrez aurre daude oraindik. Horregatik, egunero, esnatutakoan, beldurra sentitzen dugu, beldur horrek ez dizu pentsatzen uzten, ezta lan egiten ere; hau da, ez du pentsatzen uzten.

Bakea gurea da. Saiatzen bagara, batzen gaituen zerbait izango da.

Gure ibilaldia

Gaur egun tristea da, Burunditik alde egingo dugu toki hobe baten bila. Familiako pertsona bakoitzak motxila bat da-

rama urez, mantaz eta maniokaz beteta. Oso urduri gaude, ez baitakigu ondo aterako den; espero dugu sorpresarik ez izatea.

20 ordu pasatu dira, eta azkenean, heldu gara errefuxiatu esparrura. Jende asko dago.

Gure itzulia

Burundira itzultzen ari naiz, hiru urte errefuxiatuen esparruan eman ondoren. Esaten dute guda bukatu egin dela. Ohi-tuta nengoen hemen egoteaz, baina orain bueltatu egin beharko dut. Espero dut hango familia eta lagunak ikustea. Urte hauetan haien falta sentitu dut.

Minagora heldu gara. Klean ez dago ia jenderik. Minagon guda amaitu zenetik egoera ez da berdina. Pozik eta hunkituta nago, baina ez dakit zer aurkituko dudan.

Azkenean, nire etxearen aurrean gaude; jada ez da gurea, kendu egin digute, eta uste dut gure lurak ere kendu dizkigutela. Berriro hasi beharko dugu. Hilabete hau gogorra izango da, baina nire familiarekin nago.

Gure nahiak

Ikastolan lan txiki bat bidali digute, gure nahiak idatzi behar ditugu koaderno batean. Beti bezala lan egitera joan naiz, eta zereginak egiten nituen bitartean, pentsatzen egon naiz lanaren inguruan. Zalantza asko ditut, zaila delako norberak zer nahi duen idaztea.

Azkenean, lotara joan baino lehen nire koadernoan hauxe idatzi dut:

«Nire nahiei buruz idatzi behar dut, baina ura, janaria, ikastola, osasuna, familia eta gudak etortzen zaizkit burura. Gustatuko litzaidake honekin guztiarekin ondo sentitzea».

Hau nire koadernoko azken orria da. Ez dut gehiago idatziko, orriak amaitu dira eta nire istorioa hemen gelditzen da.

Kepak irakurtzen bukatzean, nire amamari begiratu diot eta begi umelak zituela somatu dut.

Zer gertatzen zaion galdetu diot eta erantzun dit Ashantiren bizitzak bere bizitzako momentu asko gogoratu dizkiola.

Amamak bere aita galdu zuen gudan, janari gutxi zuten, bere amak urte bat pasatu zuen Saturraranekeo kartzelan, Frantziara alde egin zuten arte. Urte batzuk geroago Ondarroara bueltatu zen, bere etxea galdu zuten, berarentzat hau ez da erraza izan.

Ezin dugu istorio hau galdu, ahalegin handia egin ondoren, koaderno argitaratzea lortu dugu. Bidaia luzearen ondoren, azkenik ASHANTIren eskuetara heldu da. Neska konturatu da bere istorioak ez duela inoiz amaierarik izan.

Aizue, nire izena Maddi da, Maddi Barankide.

TALDE-LANA IZAN DAITEKE...

TXIKIA

Jon Larriba Urrutia
Ikasbide HLBHIP

Bazen behin bost inurri eta armiarma bat, lagun minak zirenak. Udako egun batean Euskal Herriko mendi batean inurriak lan egiten ari ziren, negurako hornidurak batzen ari ziren. Denetarik zegoen: inurri bat alferra, bestea burutsua... baina guztiek zekiten oso ondo talde-lana erabiltzen. Bat-batean, tximeleta bat, harrotasun handiz, agertu zen haien kontura barrezka:

—Ez duzue askorik pentsatzen, talde-lanak ez du ezertarako balio bizitzan. Adibidez, nik ez dut inoiz erabili, eta bizitzan oso ondo nabil —esan zuen tximeletak, barre eginez.

—Hain ona bazara, zergatik ez didazu erakusten talde-lana txarra dela? —esan zuen inurriarik ausartenak, haserre.

Halako batean, tximeletak paper bat atera eta zerbait idatzi zuen.

Hegan egiten ari zenez ez zekiten zer idatzi zuen eta, orduan, inurriarik alferrenak siesta egin zuen. Orduan, txapelketa bat egingo dugu, eta bost proba hauek gainditzen badituzue, onartuko dut talde-lanak zerbaitetarako balio duela —esan zuen tximeletak.

Inurriek hitz egin eta gero, baietz esan zuten eta txapelketa hori onartu zuten.

Lehenengo proba izan zen zuhaitz batera igotzea. Tximeletak erraz lortu zuen hegan egin ahal zuelako, baina inurrientzako hori oso zaila izan zen. Pentsatzen hasi ziren nola igo zuhaitzera. Eta azkenean bururatu zitzairen armiarma

igotzea, igokari hoberena baitzen, eta hamabost minutu pasatuta, armiarmak zuhaitzaren puntara ailegatzea lortu zuen eta bere armiarma-sarearekin lagundu zien inurriei zuhaitzaren puntara igotzen; horren ostean, hasi zen txapelketaren hurrengo atala.

Bigarren proba zailagoa izan zen. Zulo handi bat zegoen lurrean, txikia zen benetan, baina haiek intsektuak ziren, beraz, haientzat itzela zen. Tximeletak erraz pasatu zuen zuloa, hegan egin ahal zuelako, baina inurriek gehiago pentsatu behar izan zuten. Ez zegoen zuloa pasatzeko modu askorik, baina azkenean konponbide bat bururatu zitzaien. Oso zaila eta deserosoa zen: inurriek elkarri eskua eman eta azkenak armiarma sare batekin oina lotu zuen. Jauzi egin zuten, eta azkenean, bazter batean lotzea lortu zuten.

Hirugarren proba ez zen oso polita izan. Urmael batera joan eta igel baten ondoan jarri ziren. Igel hori lotan zegoen, eta egin behar izan zutena izan zen igela esnatzea eta korrika egitea. Tximeletak oso altu egin zuen hegan, orduan, igelak ez zuen harrapatu. Besteek zailtasun handiagoa izan zuten, ez zekitelako hegan egiten. Ihes egitean, batzuk atzerago geratu ziren, beste batzuk aurrerago zeuden, baina igela hurbiltzen ari zen. Igela distraitztea pentsatu zuten, bakoitzak norabide batera joatea ere pentsatu zuten. Aukerarik hoberena hau izan zen: hamar metro-tara zegoen inurritegira joatea. Inurririk azkarrenak intsektu guztiak gainean hartu zituen eta korrika egin zuen inurritegira. Azkenean, oso nekaturik, lortu zuten; eta jarraitu baino lehen, siesta egin zuten.

Laugarren proba zailena izan zen inurrientzat, eta armiarmarentzat ere bai. Ibai bat zeharkatu behar zuten. Tximeletak, beti bezala, hegan eginez lortu zuen zeharkatzea ibai handi hura. Inurriek indar handia zutenenez, pentsatu zuten zuhaitzen adarrez eta armiarma sarez itsasontzi bat egitea. Denbora behar izan zuten material guztia lortzeko. Pazientzia handiz, azkenean, lortu zuten primerako itsasontzi bat egitea.

Ibaia zeharkatzen hasi ziren. Ibaia bare zegoen, hau da, olatuak ez ziren oso indartsuak, ez zegoen euririk, baina hotz handia egiten zuen. Ibaiaren beste aldea ikusten hasi zirenean, arrain bat irten zen uretatik. Inork ez zekien zer egin, guztiei bururatu zitzaien gauza bera: ibaiaren ertzera igarotzea. Denok hartu zuten arraun bat eta arraunka hasi ziren, arrainak haiek ez jateko. Denak oso azkar arraun egiten ari ziren, eta azkenean, ibaiaren ertzera ailegatzea lortu zuten, arrainak haiek jan barik.



Azken proba inork ez zuen imajinatu honakoa izango zela: tximeleta harrapatzea. Ez zen erraza izan, tximeletaren arrastoa aurkitu eta jarraitu baino ez zen egin behar. Baina horixe ez zen haien problemarik handiena. Arazorik handiena tximeleta harrapatzea izan zen, hegan egiten zuelako. Ideiarik ez zuten, orduan, inurririk alferrena txikoria-belar batean siesta egiten ari zela ikustean, ideia bat eduki zuten. Haizea hasi zenean, bakoitza petalo batera igo zen, eta tximeleta bezala egiten saiatu ziren: hegan. Ez zen oso gauza zaila izan, tximeleta beste leku batera begiratzen ari zelako; orduan, armiarma hurbildu zen, zortzi hanka zitue-
nez, ez zuen problemarik izan harrapatzeko.

Geure lagunek gainditu zituzten bost probak, baina tximeletak jarraitzen zuen galdetzen zertarako behar zen talde-lana.

—Etorri momentu batean —esan zuen inurri batek.

Ibiltzen hasi ziren eta janari multzo handi batera ailegatu ziren. Tximeleta harrituta zegoen.

—Hau seirotik lortutako janaria da, egingo dizut galdera bat: intsektu bakar batek lortu ahal du janari hau hilabete gutxitan? —esan zuen beste inurri batek.

Tximeletak segundo batzuk pentsatu eta gero, ezezko keinu batekin erantzun zien, eta denok bazkaltzera joan ziren. Eta nahi ala nahi ez, intsektu hauen ipuina amaitu egin da.

HORRELAKOAK DIRA DENON BIZITZAK?

Nahia Embún Ríos
Artxandape Ikastola HLBHIP

Irakurle maitea:

Asim Kozame dut izena, hamazortzi urte ditut eta Marokon bizi nintzen.

Mutil argala eta nahiko baxua naiz. Begi eta ile beltz-beltzak ditut, eta nahiko azal beltzarana dut.

Lagun asko ditut eta oso mutil jatorra naiz. Oso dibertigarria ere bai.

Gaur istorio txiki bat idatziko dut, espero dut ondo azaltzea gauza hauek guztiak.

Duela gutxi nire gurasoak lanetik kanporatu zituzten. Egun batetik bestera bost seme-alaben familia bat dirurik gabe geratu ginen. Denbora batez kalean bizi izan ginen, etxe berria egiteko material batzuk zabortegi batean aurkitu arte. Etxea nolakoa izango zen erabakitzen hiru egun pasatu genituen, zazpi pertsona sartu behar zirenez, nahiko handia izan behar zuelako. Azkenean, nahiko ondo geratu zitzaigun.

Egunak joan, egunak etorri, dena nahiko ondo zihoan, nire ama gaixotu arte. Ospitalera eraman genuen eta medikuek esan ziguten gaixotasun hilgarri kutsakorra zela, oso sendagai garestiekin senda zitekeena.

10 dirham baino ez genituenez, ezin izan genuen ezer egin. Orduan, erabaki bat hartu genuen: etxera eramatea, bere bizitzako azken egunak familiarekin pasatzeko.

Banekien arriskua hartu beharko nuela gaixotasun kutsakorra zelako, baina hori ez zitzaidan axola, nahi nuen gauza bakarra zen egun horiek nire amarekin pasatzea, nire familian laguntzarik handiena eman zidana bera baitzen.

Baina nire aitak, beldur zenez, ez zuen bere emaztearengatik bere bizitza arriskuan jarri nahi izan, beraz, Marokotik alde egitea erabaki zuen, ez itzultzeko. Han utzi zituen bere bost seme-alabak bere emazte gaixoarekin, dirurik gabe, aita baitzen familiak zuen diru apurra lortzen zuena.

Nire aitak utzi eta biharamunean, zaharrena nintzenez, guztiaz arduratu behar izan nuen, nire ama hil egin baitzen; ez nuen beste erremediorik izan.

Denborak aurrera jarraitu zuen, nire arrebarik gazteenari gertatu zitzaion nire amari gertatutako berdina, eta heldu zen momentu bat, non nik ez nekien zer egin.

Bururatu zitzaidan bakarra izan zen zerbait egitea dirua lortzeko.

Asko eman nuen pentsatzen, baina azkenean zerbait bururatu zitzaidan... LIMOIAK LANDATUKO NITUEN NIRE «ETXE» AURREKO BARATZEAN.

Idea ona zen, bai, baina non lortuko nituen haziak?

Gure auzokideek beraien ortuan hainbat eta hainbat limoitako haziak zituzten poltsa batean, orduan, beraiek oportretan zeudenez, batzuk lapurtzea bururatu zitzaidan.

Ez zen batere zaila izan, eta nire proiektu txikia martxan jarri nuen. Zuhaitza hazi zenean limoiak hartu eta nire etxe aurrean postu txiki bat montatu nuen, limoi-edaria saldu ahal izateko.

Lehenengo egunean 5 dirham lortu nituen, eta pixkanaka-pixkanaka jateko zerbait erosteko dirua lortu nuen.

Supermerkatura nindoala, kartel erraldoi bat ikusi nuen. Bertan hau jartzen zuen: تسان حقوق حول والنصف الرابعة الساعة في المقبل الاثنى عشر مظهرة (Giza eskubideen inguruan, datorren astelehenean manifestazioa egingo da, 16:30ean). Nire aukera zen. Bertan egongo nintzen puntual-puntual. Baina zerbait gehiago jartzen zuen kartelean: الأقل على واحد درهم تتبرع أن يجب ، فيه للمشاركة (Parte hartzeko gutxienez dirham bat eman behar da).

Dirua nuen, baina postuarekin aurrera egitea pentsatu nuen, diru gehiago lortzeko horrela.

Astelehena heldu zen, ni oso urduri nengoen. Ez nintzen inoiz manifestazio batean egon, ez nekien zer zen, eta gainera, ez nekien zenbat tardatuko nuen etxera bueltatzen, nire anaia-arrebak bakarrik utzi beharko baintuen. «Ai amatxo maitea! Ez dakit zer egingo dudan!» Bueno, azkenean, hor egon nintzen, itxaroten ea noiz hasiko zen. Pila bat jende zegoen, eta estresatzen hasia nintzen. «Aaaaaaaaaaaaaaaaa» Oihu egin behar nuen.

Azkenean hasi egin zen. Zer ondo! Guztiak geunden garrasi egiten giza eskubideen alde, bat-batean, nire inguruko bat ikusi nuen labana zorrotz-zorrotz bat zuela andre bati jarraituz. Hura gelditzen saiatu nintzen, baina ni ikusi nindueanean nire atzetik korrika etorri zen.

Ni ere korrikan hasi nintzen hura nire atzetik zihoala ikusita; beldurrak jota nengoen, baina bat-batean bere eskua sentitu nuen nire jertse berde militarretik tiraka.

Hor bertan borroka hasi zen, sudurretik odoletan utzi ninduen lehenengo, baina nik gero bera lurrera bota nuen eta konorterik gabe utzi nuen.

Hori da gogoratzen dudana bakarra, gero zorabiatu egin nintzelako. Berrero jaikitzerakoan polizia kotxe batean nengoen, eskuburdinak jarrita. Ez nituen be-lanak sentitzen. Ordu bat eta gero, epailearen aurrean nengoen, nire txanda ea noiz etorriko zain. Bitartean, labana zuen mutikoa epailearen aurrean... Gezurti itzela! Epaileari esan zion berak bertan labana zeukala denda batean hartu egin zuelako, baina hori gezurra zen, nik ikusi bainuen neska baten atzetik, labana es-kuan zuela beraren atzetik korrika.

Nire txanda heldu zenean, gutzia azaldu nuen, baina epaileak... ez zidan sinetsi.

Eta orain hemen nago, kartzela batean, bertako hor-metan marrak jartzen denbo-ra neurtzeko. Bi urte bakarrik, nire familiak hemen nagoela jakin gabe, eta garrantzitsue-na, nire anai-arrebak zaindu gabe, gainera, ezin naiz itzuli bi urte gehiago egin arte.

Hau idatzi dut irakur-tzen duenak jakiteko zein zo-rionekoa den nirea bezalako bizitza ez edukitzeagatik; edo nirea bezalako bizitza duena ez dela bakarra, eta dena lehenbailehen amaituko dela pazientziaz hartzen baduzu.



Asim Kozame

CARLAREN AMETSA

Enara Peña Iturralde
Gabriel Aresti BHI

Carla bederatzi urteko neska bat da eta Bilbon bizi da. Obsesio handia du superheroiekin, ahal duen guztietan, superheroi jantziez mozorrotzen da. Egun batean, amets arraro bat izan zuen. Ametsean, superheroi bat agertu zitzaion eta bi botere eman zizkion: indarra eta ikusezintasuna.

Hurrengo egunean, Carol heroia zela sinetsita, kapa, bizikleta, kaskoa eta maskara ipini zituen eta klasera joan zen. Berak lagunei kontatu zien superheroi batek bi botere eman zizkiola, baina haiek ez zuten sinetsi. Bera, ordea, frogatzeko prest zegoen, eta esan zien:

—Ipini probak eta beteko ditut!

Hurrengo egunean, klasera iristean, bere lagunak esan zioten:

—Carla, zure ikusezintasuna erakusteko saskibaloiko trofeoa lapurtu behar duzu irakasle gelatik.

—Egingo dut —erantzun zuen Carlak.

—Zure indarra erakusteko, garbiketa gelako atea, beti itxita dagoena, ireki eta garbiketa-orga hartu.

—Hori oso erraza da! —ziurtasunez Carlak.

Carla irakasle gelara sartu zen eta saskibaloiko trofeoa hartu zuen. Ondoren, garbiketa gelara joan zen eta bere lagunak orga hartu zuela ikusi zuten. Maisu eta andereñoen ahotsak entzutean, izutu eta ihes egiten hasi zen orgarekin eta trofeoarekin, horiek patioan ezkutatuz. Lagunak harrিতuta geratu ziren eta barkamena eskatu zioten sinestu ez izanagatik.

Hurrengo egunean, zuzendaria eskolara heldu zenean, dena zikin zegoela ikusi zuen, eta garbitzailearekin hitz egitea erabaki zuen.

—Zergatik dago eskola hain zikin?

—Garbiketa-orga ez zegoen bere lekuan eta ezin izan dut ezer garbitu. Ziur aski nire errua izan da, atzo atea ez nuen itxi eta.

Zuzendariak saskibaloiko entrenatzailearekin topo egin zuen korridorean, honek esan zion trofeoa desagertu zela, eta hori oso arraroa zela, armairua beti itxita zegoelako.

Zuzendariak irakasle gelako zaintza-kamerak begiratzea erabaki zuen, eta han ikusi zuen neska bat kapa, bizikleta, kaskoa eta maskararekin. Neska mahai gaineko giltzak hartzen eta armairua zabaltzen ikusi zuen. Bertatik trofeoa hartu, atea itxi eta giltzak bere lekuan utzi zituen.

Lorezainak, landareak zaintzen zituen bitartean, garbitzailearekin orga aurkitu zuen eta zuzendariari esan zion. Zuzendariak garbitzailearen orga hartu zuen bere lekura eramateko eta gauza distiratsu bat ikusi zuen. Gauza distiratsua hartu eta saskibaloiko trofeoa zela ikusi zuen. Orduan konturatu zen mozorrotuta zegoen pertsonak lotura zuela orgaren kontuarekin.

Zuzendariak mozorrotuta zegoen neska bat ikusi zuen patioan, eta konturatu zen saskibaloiko trofeoa lapurtu zuen neska bezalako zela. Bere bulegora joateko eskatu zion.

—Kaixo, zein da zure izena?

—Kaixo, ni Carla superheroia naiz.

—Zergatik lapurtu duzu saskibaloiko trofeoa? —galdetu zion orduan zuzendariak.

—Nire lagunei nire ikusezintasunaren boterea erakutsi nahi nielako.

—Garbitzailearen orga ere lapurtu duzu?

—Nire indar superrarekin atea zabaldu nuen eta orga hartu nuen.

—Carla, gauza bat erakutsiko dizut.

Zuzendariak Carlari bideoa erakutsi zion trofeoa lapurtzen eta esan zion ez zuela ikusezintasunaren botererik. Horrez gain, garbiketa gelako atea zabalik zegoela esan zion, beraz, ez zuela indarraren boterea.

Carla horretaz konturatu zen eta barkamena eskatuz, gauzak berriro bere lekura bueltatu zituen. Horrela ikasi zuen ametsak amets direla.



JOAN ZEN BIDAIA

Endika López de la Merced
Begoñazpi Ikastola HLBHIP

Batzuetan ametsak errealitate bihurtzen dira, Gotzoni, nire istorioko pertsonaiari, gertatu zitzaion bezala. Berak kontatuko dizue.

Kaixo, Gotzon naiz, zazpi urte dauzkat, mutil alaia, jatorra, sentibera eta, batez ere, irudimen handikoa naiz, eta hiri polit batean bizi naiz. Nire hiria mendiz inguratuta dago eta maitasunez «Botxo» esaten diogu, bertatik ibai handi bat igarotzen da, Nerbioi ibaia.

Nire hiria asko gustatzen zait, horrexegatik, lotara joaten naizenetan nire irudimena eta ametsak hasten dira...

Egun batean, orain ezin dut gogoratu zehazki noiz izan zen, bidaiari harrigarri bat egin nuen zerutik, hegan egiten, dron bat bezala, beste garai batera heltzeko; nire hiria lehen nola zegoen ikusi ahal izan nuen...

Heldu bezain pronto, konturatu nintzen nola zegoen lehen Etxebarria parkea. Parke horretan jolasten naiz nire lagunekin futbolekin, jende askok paseoak ematen ditu, bizikletaz ibiltzen dira, beste batzuk eguzkitan daude. Aste Nagusian barraka asko ipintzen dituzte han, dagoen tximiniaren inguruan; su artifzialak ikustera ere askotan joaten gara, parkean eserita.

Nire bidaiari ikusi nuenak erabat harrirituta utzi ninduen, tximiniak beste lau lagun baitzituen, eta ke beltza botatzen zuten gelditu gabe; haien ondoan makineria asko zegoen lan egiten, airea kutsatzen; hori dela eta, hiria gris eta itsusi zegoen.

Beste gauza ikaragarria ikusi ahal izan nuen: ibaiaren bi ertzetan metalezko erraldoiak zeuden eta beraien besoak mugitzen zituzten, dirudienez, metalezko kutxa handiak eramateko; eta beste gauza bat, ibaiaren kolorea marroi iluna zen, ur zikina eta arrainik gabe zegoen, ia-ia ez zegoen bizitzarik.

Ibaian itsasontzi asko zebiltzan leku batetik bestera, lan eta lan, baina begiak ixterakoan irudimenean nire hiriaren plano marraztuta ikusi ahal izan nuen, zeinetan ametsak egia bihurtzen diren.


Metalezko erraldoiari orain «Karola» deitzen diogu, bere kolorea ez da grisa, gorria baizik, eta berak Itsas-Museoaren ondoan lo egiten du. Museo horretan ibaiaren eta itsasoaren inguruan nola lan egiten zuten eta bizi ziren ikusi ahal izan dugu; gaur egun ibaian zehar arrainak mugitzen dira handik hona, eta beste animalia batzuk ere bizi dira ibaian; orain, noski, askoz garbiago dago.

Beste aldetik, lehen zama-kutxa erraldoiak pilatuta zeuden tokian, orain beste erraldoi bat dago, titanioz egindakoa, bere izena Guggenheim Museoa da. Museo horri esker bisitari asko izaten ditugu gure hirian, bai atzerrikoak, bai estatukoak, hori dela eta, hiria ezaguna da munduan zehar.

Gotzonek zera pentsatu du:

—Heldua izaten naizenean amets egitea zer den ahaztuko balitzait, hori gertatuko balitzait, saiatuko nintzateke gogoratzen, batzuetan ametsak egia bihurtzen baitira, behintzat hori ikasi ahal izan dut nire hirian...

Bilbo, maite zaitut!!!



*Miñ
Kaleta*

*Miñ
Kaleta*

*Miñ
Kaleta*

*Miñ
Kaleta*

*Miñ
Kaleta*

*Miñ
Kaleta*

*Miñ
Kaleta*

*Miñ
Kaleta*



D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



ZARENA IZATEN

Itxasne del Barrio Calvo
Artxandape Ikastola HLBHIP

*Ongi etorri nire barrua ezagutzera,
nirekin batera bizitzari buruz ikastera,
koaderno txuri baten orriak agortzera,
poema eta istorio baten bitartez, nire burua noa aurkeztera.*

Kaixo, Dani nauzue. 17 urteko mutil isil eta lotsatia naiz eta poesia da gehien gustatzen zaidana. Ez, ez naiz Bécquer edo Neruda bezalako poeta bat, egia esan, ez dut nire burua poetatzat hartzen, nire ideiak errimatuta islatzen ditut koadernoan, besterik ez.

*Badira bi urte hasi nintzela idazten,
nire pentsamenduak paperera pasatzen,
hastea oso zaila izan zen,
honen guztiaren atzean istorio bat baitzegoen.
Istorioa ezagutu nahi baduzu, jarraitu irakurtzen,
nire burua joango zara ezagutzen,
hamabost urteko mutila baino ez nintzen,
bere pentsamenduekin «tetrisean» jolasten.*

Bada bai, duela bi urte hasi zen dena. 15 urte nituen eta astelehenero legez, ikastolako autobusa hartu nuen. Ikastolara heldu, eta beti bezala, nire

mahaian eseri nintzen, ingeleseko liburuak atera eta Ireneri, nire ingeleseko irakasleari, arretaz entzuteko prest nengoen. Goizeko orduak oso azkar pasatu zitzaizkidan, filosofiako ordua heldu zen arte. Ez nuen filosofia gustuko, milaka ideia berri sartzen zitzaizkidan buruan, eta nire buruak ez zekien nola bideratu hori, beraz, blokeatu egiten zen. Hainbeste sentimendu eta pentsamendu batera ez ziren nire buruan sartzen, baina ez nintzen gai hori guztia kanpora ateratzeko. Filosofiako klaseetan ez nuen parte hartzen, eta irakasleak bidalitako lan guztiek zirriborroz beteriko paper zimurtua bezala amaitzen zuten nire etxeko zakarrontzian, horren ondorioz, zeroak besterik ez nituen ateratzen.

*Zeroz beteriko zerrenda luzea,
pentsamendu hau eta gero bestea,
labirinto honetatik lortu behar dut ateratzea,
bestela, lortu egingo dute ni zoratzea.*

Filosofia klasea hasi bezain pronto, Karmenek, filosofia irakasleak, gai berri bat planteatu zuen: «IZATEA ZER DA?» Esan eta berehala geratu zen nire burua zuri-zuri, hurrengo egunean entregatu nion lana bezala.

Karmenek, arduratuta, nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan. Bere bulegora joan behar izan nuen. Heldu nintzenez, eserita zegoen eta nik berdina egin nuen. Horrela hasi zen:

—Eguerdion, Dani, suposatzen dut badakizula batzar honen zergatia, nahiko kezkatuta nago ez didazulako lan bat ere entregatu.

—Sentitzen dut —erantzun nion nik.

—Arazoren bat daukazu arloarekin? Oso mutil azkarra zara, beste arloetako notetan ikusten da, baina filosofian... adi egoten zara klasean eta zugandik asko espero dut.

—Bada egia esan, filosofian gauza berri asko ikasten ditut, milaka ideia eta pentsamendu berri sartzen zaizkit burura, baina hainbeste gauza izanda nire barnean, ez naiz gai ezer ere kanporatzeko.

—Ikasle berezia benetan, zurekin teknika ezberdin bat proba dezakegu. Badakizu zer den poesia?

*Momentu horretan hasi zen nire burua bueltaka,
ahots batek ideia ona zela esaten zidan ahapeka,
bihotza hasi zitzaidan bat-batean taupaka,
buru maite, hasi zaitez behingoz errimaka.*

Entzunda nuen poesia hitza, beti erlazionatu izan nuen liburu aspergarririk, baina Karmenek poemaren bat erakutsi zidanean, mundu berri bat zabaldu zitzaidan nire aurrean. Karmenek orri zuriak zeuzkan koaderno beltz bat oparitu zidan, han bertan nire ideiak islatzen saiatzeko gomendatu zidan. Lanak hor idazteko ere esan zidan, eta zuzentzerako orduan koaderno hartuko zidala esan zidan. Hortik aurrera, koaderno hori oso garrantzitsua izan zen niretzat.

Gau hartan hasi nintzen koaderno nire buruaren adierazle bihurtzen, ondo pasatzen nuen hitzak korapilatzen, armiarma batek haren sarea korapilatzen duen antzera. Errimak bilatzea, ideia berriak kanporatzea, barnean nituen kezkek desagerraraztea... gustura egiten nuen nire logelan sartuta.

*Gabon berriro koaderno maite,
ez dakit zergatik kostatu zaidan hainbeste,
baina nire beldurrak utzi ditut aparte,
aurretiaz zure existentziaren berri eman izan balidate...
idazten egongo nintzateke argitu arte
nire barrutik kanporatzeko baititut gauza dexente.*

Beteta nituen jada nire koadernoko lehenengo orrialdeak, eta noizean behin andereño Karmenek nire poemak irakurtzen zituen. Askotan zoriontzen ninduen nire lanagatik, ni poz-pez bueltatzen nintzen etxera gehiago idazteko asmoz. Nire filosofiako notak asko hobetu ziren koadernoan idazten nuenetik, eta geroztik, nire arlorik gustukoak bilakatu zen.

Behin, Karmenek nire poztasunaren amaiera ekarriko zuen gauza bat egin zuen. Hainbeste gustatzen zitzaizkion nire poemak, ezen gela osoaren aurrean bat irakurri baitzuen.

*Neguko eguzkia hain da lotsagabe,
nire buru barnean sartu da atea jo gabe.
Hura alaitzeko gai bada, niretzat hobe,
baina ez daki ni ez naizela nire denboraren jabe.
Ordu gozoak,
ordu garratzak,
denetarik du bizitzak.
Baina eguzki maite, gaur behar ditut zure izpiak,
ez baitakizu ze min egiten didan euriak.*

Nire poema bat zela esan zuenean, klase guztia hasi zen barreka, koaderno beltza eskutik eskura pasatu zen kanika txiki bat izango balitz bezala. Ez nuen sinisten, nire barrenaren zati bat jendearentzat ikusgai zegoen, nire intimitatea bortxatua izan zela sentitzen nuen, eta gainera, jendearen komentarioak entzun behar izan nituen. Oso haserre nengoen; beraz, nire gauzak hartu eta joan egin nintzen. Karmen, arduratuta, nire atzetik atera eta nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan, baina ez nion kasurik egin.

Hurrengo asteak infernua izan ziren niretzat, korridoretatik nire izena entzun nuen hemen edo han, era guztietako komentarioak entzun behar nituen: «Zer, Dani, irten da eguzkia burutik?», «Eguzki maite! Eguzki maite!», «Kaixo guztioi, Dani poeta naiz eta nire koaderno beltzarekin andereño Karmen lausengatzen dut». Egunak amaiezinak egiten zitzaizkidan, nahi nuen bakarra etxera heltzea zen. Baina etxera heltzean ez nuen ezer egin nahi. Normalean idatzi egiten nuen, baina egun haietan ez nuen horretarako gogorik ere. Eta norbaitek koaderno hartzen bazuen berriro? Ez nuen arriskatu nahi; beraz, idazteari uztea erabaki nuen, eta koaderno beltza zakarrontzira bota nuen.

Erabakia hartu eta gero, dena bihurtu zen gris berriro ere. Idaztea zen nire burua lasaitzen zuen bakarra, eta hori ere kendu zidaten. Asteak igaro ziren andereño Karmenekin hitz egin gabe, oso haserre nengoen berarekin. Egun batean dena daukazula dirudi eta hurrengoan, berriz, guztiz hustuta sentitzen zara. Zelako egoera arraroa! Warner parkeko errusiar mendi haiek baino txarragoa zen nire burua, beti gora eta behera, lasaitu ezinik.

Egun batean, korridoretik nenbilela, norbait tiraka nabaritu nuen. Andereño Karmen zen, niri poztasuna eman, eta aldi berean, kendu zidan bera. Ez nuen hitz egiteko gogorik, asteak neramatzan ezer ere egin gabe klaseetan, ez nuen andereño baten diskurtsoa momentu haietan entzun nahi, beraz, beste aldetik joaten saiatu nintzen, baina emakumeak ez ninduen utzi. Besotik heldu eta bere bulegora lagundu ninduen.

Han, bere eserlekuan eser zedin itxaron nuen, baina ez zen hala izan. Mahai gaineratik koaderno beltz bat hartu eta laugarren orrialdea zabaldu zuen. Irakurtzen hasi zen:

*«Hemen idazteak egiten dit grazia,
baina hemen dut eguneroko afaria,
badakit badela modu berezia
nire burua baretzeko dudan aitzakia.
Gaur egun, bazara nire eguzkia,
nire egunei ematen diezu argia.
Bai, ematen du oso “kurtsia”,
baina ondoan behar zaitut, nirekin, alegia.
Zuri emango nizuke daukadan guztia,
amets bez bete baituzu nire buruaren amildegia,
zugatik apurtuko nuke arautegia,
egingo nuke edozein astakeria,
nigan izan duzu eragin handia,
baina nori buruz ari naiz? Pertsonaz edo poesiaz?»*

Isiltasuna. Hori zen poema horrek ekartzen zuena. Bai, idatzi nituen nire lehen lerroetako batzuk ziren. Karmenek isiltasun hori apurtu zuen eta nigana zuzendu zen horrela:

—Begira, Dani, badakit aste hauek ez direla zuretzat errazak izan, baina zuk egiten duzuna artea da. Ez duzu egiten duzunaz lotsatu behar, are gutxiago, ez diozu jendeak esaten duenari kasu egin behar. Espero dut poema honek zuri idazten hasteko arrazoiak gogoraraztea.

Karmenen hitzak eta nire poema entzun ondoren berriro ere sentitu nuen argia nire barnean. Andereñoak arrazoiak zuen, nortzuk ziren haiek niri esateko zer egin eta zer ez? Poesia maite nuen zerbait zen eta ez nion idazteari utziko nire inguruko jendeak esango zuenari beldurra izategatik. Idazten jarraituko nuela erabaki nuen, inork ez zizkidala oinak geldiaraziko zin egin nion nire buruari, eta gaur egun, oraindik, nire hitza bete egiten dut. Egunero idazten dut nire koadernoan, agian ez dira gauza oso landuak, baina nire burua lasaitzeko eta ni neu naizen bezalakoa adierazteko oso baliagarria da.

ZUHAITZ BATEN IKUSPUNTUA

Lucía Álvarez Sáiz
San Ignacio BHI

Izenburuan ikusi ahal duzuen bezala, zuhaitz baten bizitza bizitzen ari naizela esan ahal da. Ikusi gabe. Mugitu gabe. Baina, batez ere, hitz egin gabe. Egunean egiten dudak bakarra arnasa egitea da, horretaz oso ziur nago. Beraz, asko pentsatu eta gero, nire bizitzaren izenburua asmatzea erabaki dut: «Zuhaitz baten ikuspuntua».


Egia esanda, zuhaitzak nire bizitza baino askoz interesgarriagoak dira. Adibidez, haiek oxigenoa sortzeko prozesuan parte hartzen dute. Nik, aldiz, oxigeno hori agortu besterik ez dut egiten. Gainera, haiek, ni ez bezala, kanpoan landatuta daude eta eguzkiaren argia barneratu egin ahal dute. Zer emango nukeen nik argi pixka bat sentitzeko! Nire buruan dena ilun dago, baina badakit non nagoen; gela txiki batean atxilotuta egun osoan, esku-ohe batean landatuta... Beno, hori deduzitu dut nik. Egia esanda, nire gorputzaren atalak oso gutxi sentitzen ditut, erreko banintz, ez nuke ezta pixka bat ere sentituko.

Hasieran asko kostatu zitzaidan nire egoeraren jabe izatea. Auto-istripua gertatu zenean, burua bueltaka nuen. Konortea galdu baino lehen, ikusi nuen azken gauza nire nebaren aurpegia izan zen. Handik gutxira sirena baten soinua entzun egin nuen, horrek nire buruko ekaitza handitzea besterik ez zuen lortu. Oso gutxi gogoratzen dut ondoren gertatu ziren gauzetatik, baina uste dut pertsona bat ni hartzen saiatu zela. Nire gorputzak ez zidan erantzuten, eta gero eta gutxiago ikusten nuen. Oihukatzen, korrika egiten edo negar egiten saiatu nintzen, baina egin ahal izan nuen bakarra itxoitea izan zen. Nire neba ezin nuen entzun, soilik

medikuen ahotsak aditzen nituen. Probak egiten zizkidatela nabaritzen nuen, nire gorputza guztiz geldirik zegoen bitartean.

Gainerako ibilbidea ez dut oso ondo gogoratzen, baina antzeko gauzak gertatu ziren. Ospitalean geundela, sumatu nuen nire inguruan zegoen zarata eten egin zela. Ordura arte ez nintzen konturatu, baina beldurrak jota nengoen. Medikuak entzuten nituen niri buruz hitz egiten, eta bat-batean, besoa sastada bat nabaritu nuen. Gainerakoaz ez naiz gehiago gogoratzen.

Konortea berreskuratu nuenean ezin nuen ezer ikusi, mugitu gabe jarraitzen nuen, baina jada buruan ez nuen minik. Burua lasaiago nuen, baina autoan hartu nituen kolpeak eta erredurak nabaritzen hasi nintzen. Oihukatzeke edo mugitzeke hainbat saiakera egin ondoren, nire inguruan gertatzen zenari adi egotea erabaki nuen. Nire ama, gora eta behera, negarrez eta aita lasaitzen saiatzen ari zen. Besarkatzen irudikatu nituen. Nire neba bertan egongo zela suposatu nuen, baina ezin nuen entzun. Ez nekien nola egongo zen istripuaren ondoren eta horrek asko beldurtzen ninduen.



Orduak, egunak eta urteak pasatu ziren. Pixkanaka-pixkanaka errealitateko gauzak nire imajinazioarekin nahasten nituela konturatzen nintzen. Batzuetan nire lagunak nire urtebetetzea ospatzera etortzen zirela imajinatzen nuen, edo besterik gabe, norbait etortzen zela niri hitz egitera. Baina, ondoren, pentsatzen eta bueltak ematen hasten nintzen eta nire gelan ez zela inor sartu konturatzen nintzen. Bakarrik sentitzen nintzen, gurasoen ahotsak ez nituen entzuten hain maiz. Dena monotonoa eta frustagarria zen, egun batera arte. Nire gurasoen bisita urrietako batean nire egoerari buruz hizketan hasi ziren. Oihukatzen eta eztabaidatzen hasi ziren...

Nire amak deskonektatu nahi ninduen.

Ordutik aste bat pasatu da, edo hori suposatzen dut. Batzuetan nire irudimenaren gauza bat izan zela uste dut, nire subkontzientea zerbait esaten saiatzen... Baina badakit hori gezurra dela.

Aste bat ez da denbora asko pentsatzeko, baina denbora horretan egin ahal duzun bakarra pentsatzea bada, denbora nahikoa daukazu. Milaka buelta eman dizkiot heriotzaren kontuari eta ez nago batere beldurtuta. Egun hau iritsiko zela banekien eta prestatuta baino prestatuago nengoen. Zuhaitz batek zerraren motorra entzuten duenean badaki bere txanda heldu dela.

Horren froga orain ikusi, edo hobeto esanda, entzun ahal da. Nire gurasoak medikuarekin sartzan ari dira gelan. Ama oso aztoratuta dabil, medikuarekin oso azkar hitz egiten ari da. Nire aitak ez du ezer esaten, baina hemen dagoela badakit, nire eskutik heltzen ari zaidalako. Hala ere, ez da nire aita kezkatzen nauena, ezta nire ama ere, nire neba baizik. Ez dizkiot pausuak entzun, ez baita etorri. Ospitalera ez da inoiz etorri, edo hori susmatzen dut. Batzuetan berarekin nagoela berriro irudikatzen dut, bere aurpegia ikusten eta bere arropa usaintzen dudala, baina badakit irudi horiek gezurra direla, bere ahotsa eta usaina ahazten ari naizelako. Azken aldiz besarkatu nahi nuke, azken arnasa berarekin eman...

Amak hitz egiteari utzi dio eta negarrez dagoela uste dut. Aita nire alboan ez dagoela sentitzen dut, eta biak besarkatzen ari direla suposatu dut. Entzuten dira medikuaren pausuak, nigana aurreratzen ari direla. Botoi bat sakatu du. Nire arnasketa astiroago doa. Nire bihotz taupadak entzuten ditut buruaren barruan. Esaten dute zure bizitza osoa begien aurrean pasatzen dela hil baino lehen, baina nik nebarengan baino ezin dut pentsatu. Bere aurpegia ikusten ari naiz kotxearen barruan. Dena ulertu dut. Berarekin joango naiz momentu bat barru.

IZARRARTEKOA

Jone Candela Fernández
Artxandape Ikastola HLBHI

Ilargira joatea izan zen beti Oihaneren ametsa. Espazioa oso gogoko zuen. Hainbeste gustatzen zitzaion, non bere logelako sabaia gauean dir-dir egiten duten izarrez beteta baitzeukan.

Izarrak sortzen zituzten konstelazioek, nebulosen koloreek, planeta batzuen eraztunek liluratzen zuten neska.

Oihane 10 urteko neskatila zen. Burugogorra, langilea eta, batez ere, ameslari hutsa. Superheroien programak gustatzen zitzaizkion, asko sartzen zen pertsonaien paperetan. Denoi gertatzen zaigun bezala, superheroien serie bat bukatzen zuenean, hutsune izugarria geratzen zitzaion bihotzean, bere ilusio edo zirrararen garra itzali izango balitz bezala.

Hortik zetorren bere espazioarekiko obsesioa. Lur planetan egotea aspergarria zela zioen. Espazioan ez dagoela araurik, ezta grabitateari buruzko araurik ere. Superheroiak bezala, airean esekita egotea irrikatzen zuen bere indar guztiekin. Lurrean sentitu ezin diren gauzak espermentatu nahi zituen, programa edo serie batek eskaini ezin dituenak.

Oihaneren ilusio hori ez zen haurtzaroarekin eta nerabezaroarekin joan. Espazioa aztertzen bizitza emango zuela erabaki zuen txikitatik. Ideia batek, noizbait ilargia bere oinekin zapaltzeko gai izateak, bultzatu egiten zituen izugarritzko potentziarekin bere esfortzua eta gaitzitate pertsonala.

Unibertsitatean Fisika karrera egin eta Astronomian lizentziatu zen. 26 urterekin, Estatu Batuetako laborategi espazialik handienean lan egiteko hautatua

izan zen. Hasieran ez zuen gauza handirik egiten, beste astronomo baten idazkaria eta ikaslea baitzen. Astronomoak Aria zuen izena, 32 urte zituen eta izarren obserbazioaren departamentuan lan egiten zuen. Berarekin Oihanek teleskopio nagusiaren funtzionamendua ikasten zuen batez ere.

Benetan lanean jartzeko eguna heldu zitzaion Oihaneri. Sei hilabetetan txostenak idazten egon eta gero, benetako postu garrantzitsu bat hartuko zuen azkenean. Ezin zion pozari gorputzaren barruan eutsi: zeruko izarren begiraleetako bat izango zen, Ariarekin batera.

Ariak Oihaneri bere lantoki berrira laguntzen zion bitartean, Oihaneren eskuek dar-dar egiten zuten.

—Zer? Irrikan, ezta? —galdetu zion Ariak bere eskuak ikusterakoan.

—Bai, noski! —erantzun zuen Oihanek irribarre urduri batekin.

Ariak Oihanerena izango zen ordenagailua eman zion, eta idazmahai handi batean eseri ziren biak.

—Gaua hasi baino lehen, gauza bat azaldu behar dizut: Irrati-seinaleen departamentuari espazio-zunda ezezagunak ailegatu zaizkio azken asteetan. Beraz, guk inoiz baino adiago egon beharko dugu, ia izarretatik estimulu susmagarri berriren bat ikusten dugun. Momentu egokian batu zatzaizkigu, badakizu zer esaten duten: amuarrainak bi begi, sei ezkailuk hamabi.

—Benetan ari zara? Soinu arraroak ailegatu zaizkigu espaziotik? —Oihaneren begiek bozkarioa adierazten zuten—. Nik soinu horiek entzun nahi ditut! Imajinatu estralurtarrek bidali izan balituzte!

—Bai, benetan ari naiz. Asko gustatzen zait zu hain pozik ikustea, ez zaitut gogogabetu nahi, baina badakizu soinu horiek fenomeno espazial batek sortutakoak izan ahal direla.

—Badakit, baina hor kanpoan bizitza egon ahal dela pentsatzea gustatzen zait...

—Dena den, audioa ulertezina da. Oraintxe bertan ikertzen ari dira ia historian zehar hots horien antzeko zerbait ailegatu zaigun...

Arratsaldeko 20:30ak. Oihane lanean sartzeko ordua. Zeruko behatzaileen taldeak honela egiten zuen lan: teleskopio nagusitik ikuskatzeko txandakatzen ziren, bakoitzak ordubete. Bitartean, beste guztiek haien ordenagailuen jakinaren gainean egon behar zuten. Zeruan mugimendu edo aldaketaren bat egotekotan, automatikoki pantaila piztu eta zer gertatzen ari zen erakutsiko zieten.

Lehenengo orduan, langileak hizketan egon ziren, ia ordenagailuek zerbaiten berri emango zieten zain. Teleskopiotik begiratzeko bigarren txanda Oihaneri tokatzen zitzaion. Lekutik altxatu eta teleskopioa zegoen gelara joan zen. Atea zabaldu zuenean, gela nahiko txikia zela ikusi zuen. Gainera, gelaren hiru laurdenak teleskopioaren portaokularrak hartzen zituen. Tramankulu ikaragarri horretaz aparte, taburete gorria eta mahai txikia besterik ez zeuden. «Badirudi ez naizela oso eroso egongo...» pentsatu zuen.

15 minutu zeramatzanean aldaketarik ikusi gabe, Virgo konstelazioan, Ross 128 izarrak ausazko bristadak botatzen zituela ohartu zen. Baina korrika batean bere lankideei esatera joan baino lehen, Oihane izarrari begira geratu

zen segundo batzuk gehiago. Distira batzuk besteak baino luzeagoak edo motzagoak ziren.

«Ez dira ausazko bristadak» hotzikara bat zeharkatu zuen Oihaneren gorputza bere buruan kodigo morseak jo zuenean. Norbaitek edo zerbaitek bera-ekin komunikatu nahi zuen. Libreta batean ikusten zituen distirak apuntatu zituen. Beldurraren eta zirraren arteko gauza bat sentitu zuen, dudarik gabe Oihanek inoiz edukitako emoziorik arraroena eta biziena. Izarraren argia osorik itzali zenean, mezua bukatu egin zela jakin zuen Oihanek.

Apuntatutakoa euskarara itzuli baino lehen, gertatutakoa talde osoari azaldu behar zion. Gelaren atea zabaldu zuenean, odola hoztu zitzaion. Taldekide guztiak, Aria barne, lo zeuden, baina ez aulkietan, baizik eta lurtean botata zeuden, begiak zuriz jarrita. Oihaneren bihotza bizkortzen hasi zen, bero izugarria sentitu zuen buruan. Gertatzen ari zena ez zen batere normala. Hori izan zen Oihane testua itzultzea erabaki zuen momentua:

«Zuek estralurtartzat hartzen dituzuen horiek gu gara. Behar zaitugu zure eta gure planeta salbatzeko.

Zu txikia zinenetik nabarmena zinen, zure pasioa eta ambizioa beti izan dira deigarriak guretzat. Gainera, denborarekin, gaitasun handiak dituen burua daukazula konturatu gara. Zu berezia zara, Oihane, horregatik, hautatu zaitugu gure mezua Lur planeta osora zabaltzeko.

Begira, gu ez gara munstro estralurtar batzuk. Gu zuek gara, gizakiak gara. Orain dela 100.000.000 urteko gizakiak. Gure arraza desagertzeko zorian dago, milioika urte daramatzagulako espaziotik bidaiatzen noraezean. Bizi izan garen planeta bakarra Lurra da. Zuek ohartzera gatoz, oraindik denbora daukazue beroketa globala gelditzeko. Bestela, gure patu berdina edukiko duzue».

Lehen bero itogarria zena Oihanerentzat, orain hotz zorrotz eta zitzakari bihurtu zen. Ez zituen hankak sentitzen, eta mezua ulertu baino lehen, konortea galdu eta lurrera jausi zen.

Oihanek nekez zabaldu zituen begiak. Ohean zegoen. Gertatutakoa gogoratu zuenean, azkar agondu zen. Kopeta ukitzen zuen, lotan denbora asko pasatu balu bezala. Leihotik begiratu zuen. Begiak igurtzi zituen: «Zeeeeer?» Lur planeta ikusten zen bere leihotik. Hain zentratua egon zen gertatutakoa asimilatzen, ezen grabitate-eza ez baitzuen nabaritu orain arte. Oihaneren lehen erreakzioa bozkarioa izan zen, baina ohartu zenean ez zekiela bertan zer egiten zuen, beldur izugarria gorputzera bueltatu zitzaion. Oso astiro atzera buelta eman zuen.

Pertsona batzuk ari ziren berari begira. Bueno, pertsonak, edo... horrelako zerbait. Begiak gizaki batenak baino askoz handiagoak zituzten, barailezurra askoz

meheagoa, eta eskuko atzamar lodia oso luzea zeukaten. Batek hitz egin zuen: «Kaixo, Oihane. Ongi etorri gure espazio-ontzira».



BELDURRA GAINDITZEN

Anne Andrés Sánchez
Artxandape Ikastola LHBHIP

Emakume ikusezin bat izan nintzen denbora luzez. Ez, ez nintzen zuen adimean sortzen ari zareten kontzeptuaren modukoa, ezta Hollywoodek erakusten dizkizuen filmen pertsonaia magiko eta liluragarrien modukoa ere. Benetako pertsona nintzen, Aintzane izenekoa, pentsamendu eta sentimendu asko zituen eta izugarritzko irudimena zuena. Niregana hurbiltzen ari ziren gutxi batzuek besteek sortutako aurreiritzia soilik ikusten zuten. Dena ikusten zutela uste zuten, nire barrua izan ezik.

Nire amak hezi ninduen eta ezkongabea zen. Ez nuen inoiz sentitu umeek bere aitarengandik jasotzen zuten maitasuna, baina ama zulo hori betetzen saiatu zen beti. Lanean igarotzen zituen gau eta egunak, ni mantentzeko. Gauean lan egiten zuenean, nik beldur handia pasatzen nuen, eta amak, hori konpontzeko, beti istorio berdina kontatzen zidan, gerora norbaiten bizitza hobetzeko erabili nuena. Baina hori gero etorriko da, denbora eman.

Egun batean, kaletik nindoala, ama arraro samar nabaritu nuen, aste bat lehenago minbizia diagnostikatu ziotela aitortu zidan. Hilabete batzuk geroago, minbizi madarikatu horrek nire familiaren azken zatia indarrez kendu zidan, eta hor nire bizitzak 360 graduko bira oso bat eman zuen.

Handik aurrera, Rielang umezurztegian igaro nituen urte asko, eta han burla askoren zentroa izaten nintzen askotan, neska bakartia eta lagunik gabea nintzelako haientzat. Ez nintzen inoiz sozializatu eta ikusezin sentitzen nintzen horregatik. Hala ere, ez nintzen inoiz izan beldur defendatzeko, amaren istorioa beti buruan bainuen. 18 urterekin irten nintzen infernu horretatik.

Irten nintzenetik 5 urte igarota, Rielangera bueltatu nintzen, ni bezala sufritzen ari ziren haurrei laguntzera. Umezurztegiaren atean nengoela, negarez zegoen neska batekin topatu nintzen. Banku batean jesarri ginen eta gertutakoa kontatu zidan: ume talde batek neskari barre egiten zioten denbora guztian, beldurrak jota zebilenez, ezin zela defendatu eta ezin zuela gehiago aitortu zidan. Neskarekin identifikatuta sentitu nintzen, eta urte askotan etengabe gogoratzen nuen amaren pasarteak kontatzea erabaki nuen.

—Nire amak txikitan esaten zidana kontatuko dizut. Nik ere beldur handia pasatzen nuen askotan, horretarako, amak kutxa bat margoztu zidan logelaren horman, kutxa magiko bat. Ni beldur izango nintzenean, kutxa ireki eta beldur guztiak irentsiko zituen. Baina behin bakarrik ireki nezakeen, nire bizitza osoan behin bakarrik, behar-beharrezkoa nuenean. Orduan, beldur izaten nintzen momentu bakoitzean beti pentsatzen nuen «pixka bat gehiago jasan dezakezu, apur bat gehiago». Hurrengo egunean, beldur handiagoa eduki nezakeenez, kutxa nire ondoan beharko nuela gogoan izaten nuen.


Ez nuen inoiz kutxa ireki.

—Oso ausarta izan zinen —erantzun zidan neskak.

—Nire amari esker izan zen. Ez izan beldur, ziur nago haiek baino ausartagoa zarela, edozein pertsona ez da zuk jasan duzuna pairatzeko gai.

—Nola ausartagoa? Nire burua haien aurrean defendatzeko kapaza ere ez naiz eta, nola izango naiz, bada, ausartagoa? —galdetu zidan.

—Zuk ulertzeko adibide bat jarriko dizut: imajina ezazu ume horiek loreak direla, oso politak kanpotik, bai; baina sustrai gutxi dituzte lurpean, ordea. Gu zuhaitzak izango gara, ez gara hain politak, baina sustrai asko ditugu ezkutuan.



Haize-bolada batez loreak suntsituko lirateke, zuhaitzek, berriz, hosto batzuk galduko lituzkete soilik. Garrantzitsuena ez da besteek erakutsi nahi duten fazeta, faltsua baita, barruan daukaguna baizik. Eta zuk, laztana, sustrai asko dituzu barnealdean. Horregatik, badakit ausarta zarela.

Ulertu zuela ziurtatu nuenean, kutxa magikoa orri batean margoztu eta joan egin nintzen.

Handik sei urtera, kaletik nindoala, neska bera topatu nuen. Orain, familia bat zeukan eta iraganean faltan bota nuen irribarrea zeukan aurpegian margoztuta. Niregana hurbildu eta oraindik ahaztu ezin ditudan bost hitz esan zizkidan:

—Ez nuen inoiz kutxa ireki.

Momentu horretan ikusezina izateari utzi nion. Norbaitek ikusi zuen benetan nintzen pertsona, behintzat: ausarta, esperientzia gogorreire esker ikasi zuena, defendatzen bazekiena eta txikitatik laguntzeko prest zegoena.

BAT EGIN GENUEN BIDAIA

Maialen Cámara San Pedro
San Ignacio BHI

Maletaren ganean jarri naiz, gauza gehiegi sartu ditut. Horrelakoa naiz, zazpi egunetarako arropa gehiegi eramaten dut beti. Hamar kamiseta, bi praka motz, bi luze, bi txandal, gona bat badaezpada, pijama, mudak, nezeserra, zapatila zuri-zuriak, bota beltzak... Urduri samar nago, azkenean nire ametsetako bidaia egingo baitut, Estatu Batuetara. Txikitatik esaten nion aitonari Estatu Batuetara joango nintzela nagusitan, han diruduna egingo nintzela eta gure arazo guztiak konponduko zirela. Aitonak, aurpegian irribarre bat margotuta zuela, begiratzen zidan, itxaropentsu. Tristura ematen dit aitona bizirik ez egoteak, azkenean lortu dudala ikusi ahal izateko. Pobreziatik irten naizela esan nahiko nioke eta dena ondo doala, orain kazetari ospetsu bihurtu naizela.

Ene! Nire pentsamenduetan murgilduta denborak azkar egin du aurrera. «Aireportura berandu helduko naiz!». Maleta presaka itxi dut eta taxi bat eskatu dut. Taxia heldu da eta mugikorrak jo du. Aireportuko mezu bat da: «Su avión despegará dentro de 1h». Berandu noa, beti bezala. Beste mezu bat. Oraingoan nire ama da, oso babeslea izan da beti. Nire kabuz hain urrun egiten dudan lehenengo bidaia da eta kezkatuta dago. Aireportura heldu, taxitik jaitsi eta ontziratzeko atera joan naiz. Justu-justu entzun dut azkenengo deia: «**Última llamada para los pasajeros del avión Bilbao-Nueva York**».

Hegazkinean nago jada, leihoaren alboan tokatu zait. Alboko gizonak atentzioa eman dit. Txapel handi eta deigarria darama, baita gabardina beltz eta luzea

ere. Aurreko andreak soineko koloretsua, takoidun zapata arrosak eta betaurreko ilunak daramatza soinean. Atzeko ume txikiak lorik egiten utziko ote didan ez dakit, momentuz ondo portatzen dabil. Gainera, ama ezaguna egiten zait, noizbait auzotik ikusi dudala uste dut. «Abróchense los cinturones hasta que la luz situada encima de sus cabezas se apague, gracias». Azafatak agertu egin dira eta dena azaltzen hasi dira. Momentu horretan umea negar egiten hasi da, eta horrela jarraitu du ordu erdiz. Azkenean negar egiteari utzi dionean, lokartu egin naiz.

Trumoiaren hotsarekin esnatu naiz izututa. «Por favor, pónganse los chalecos salvavidas y sigan las instrucciones del comandante». Txalekoa jantzi dut. Izuak hartuta nago. Bidaiari guztiak ere bai. Ez dakit zer pentsatu. Ez dakit zenbat denbora egon naizen lokartuta. Alboko gizonari galdetu diot ordua:

—Arratsaldeko zortziak dira jada —esan du lasai. Horrek New York hurbil dugula esan nahi du. Pixka bat lasaitu naiz. Laster itzuli dira beldur eta zalantza guztiak, komandanteak honako hau adierazi digunean: «Tenemos averiado uno de los cuatro motores, pero tenemos todo bajo control». Atzean nuen ama negar batean hasi da, malko beltzak ditu aurpegian irristaka. Umea altzoan du eta maitasunez besarkatzen dabil. Zenbat eta gehiago begiratu, gero eta ezagunagoa egiten zait bere aurpegia.

Badakit! Nire haurtzaroko laguna izan zen. Momentu horretan poztu egin nau aurpegi ezagun bat topatu izanak. Nadia du izena, bere familia migratzailea izan zen, ez zuten diru askorik. Oso lagun onak ginen, gogoan ditut oraindik berarekin pasatutako arratsalde luzeak... Zelako denboraldi ona! Malko batek nire begitik ihes egin du. Bat-batean une guztiak etorri zaizkit burura, bere amamaren kondaira zaharrak udako gau luzeetan, parkeko jolasak eguzkia joan arte, patioetan soka saltoan jolasten... eta hainbat gehiago. Gure etxetik kaleratu gintuztenean galdu genuen kontaktua. Alai jarri nau ume batekin ikusteak, espero dut pobreziatik irtenda egotea eta familia zoriontsua izatea. «Hurbilduko naiz, ez naiz hurbilduko, hurbilduko naiz, ez naiz hurbilduko...»

«Nos hemos desviado de la ruta hacia Nueva York a causa de la tormenta, por favor, mantengan la calma y no se levanten de sus respectivos asientos».

Lasaitasun unea apurtu egin du ahots horrek. Dardarka hasi naiz. Esku hotz bat nabaritu dut sorbaldan. Izutu egin naiz. Biratu naiz eta alboko gizonaren begirada lasaiarekin egin dut topo. Nik behar nituen hitzak esan dizkit: «hegazkin istripuen ikertzailea naiz». Lasai arnastu dut. Dardarka egiteari utzi diot. Bat-batean negarrez hasi naiz. Emozio desberdin asko denbora gutxian. Eskutik gogor heldu dit. Aurreko andrea altxatu da eta korridore erdian botaka egin du. Oka alde batetik bestera hasi da zabaltzen, turbulenzien ondorioz.

Gero eta gehiago mugitzen da hegazkina, turbulenzia asko daude. Leihotik begiratu dut non gauden jakiteko asmoz. Ikusten dudana bakarra kea da. «Por favor, no se desabrochen sus cinturones y mantengan la calma, lo tenemos todo bajo control». Leihoan jarri dut atentzioa berriz ere. Ezin izan naiz pozikago jarri, kostaldea ikusi dut! Oihuka jarri naiz. «Kostaldea ikusi dut. Salbatu gara!». Inork ez du ezer esan... Komandanteak konfirmatu egin duen arte. «Hemos divisado tierra, estamos en la zona de Canadá y vamos a hacer un aterrizaje de emergencia». Txaloak entzun dira hegazkin osoan zehar. Nire amarengan pentsatzen hasi naiz, gaixoa, hau kontatzen diodanean nik baino gehiago sufrutuko du.

Argiak itzali dira. Jaisten hasi gara. Izua hedatu da hegazkinean. Beldurra. Nerbioak. Negarrak. Irribarre urduriak. Hegazkineko mugimenduak gero eta bortitzagoak dira. Nadiak bere umea besarkatzen jarraitzen du. Danba! Kolpe bat eman dut buruan leihoaren kontra. Loki ingurua ukitu dut. Odoletan nago. Ez dakit zer egin. Jertsea kendu egin dut eta benda balitz bezala jarri dut zaurian, presioa eginez. Mareatzen hasi naiz. gogor heldu diot aurreko eserlekuari, ahalik eta gutxien mugitzeko. Danba! Beste kolpe bat. Konortea galdu dut.

Esnatu egin naiz, lurreratu gara jada. Hegazkin barruan jarraitzen dugu; baso ilun batean gaudela uste dut. Dena lauso ikusten dut; atzera begiratu dut. Nadia eta umea ondo daude, alboko gizona ere bai. Isiltasuna dago. Ez zait gustatzen. Urduri jartzen ari naiz. «Hemos aterrizado con éxito. En un tiempo vendrá la ayuda». Txalo batzuk entzun dira. Isiltasuna bueltatu da.



«Ha perdido mucha sangre no sé si podrá sobrevivir». Berriro ere konortea galdu dudala uste dut. Entzun dudan lehenengo gauza medikuaren ahotsa izan da. Begiak zabaldu ditut eta ez dut ondo ikusten. Argi gehiegi dago, ospitalean nagoela uste dut. «Itsaso, Itsaso, ¿me oyes?». Medikua da, erantzun nahi dut, baina ez dut indarrik. Soinu bitxi batekin erantzun diot. «Los demás pasajeros han sufrido daños leves, están todos bien». Beste mediku baten ahotsa. 234. logela. Hori da nirea. Kable batzuk jarri dizkidate eta makina bat txistu egiten hasi da: «Pi.Pi.Pi.Pi.Pi...»

Gosaria daukat ohe gainean. Nadiaren aurpegia ikusi dut. Poztu egin naiz. Momentua da. Orain esango diot elkar ezagutzen dugula.

—Zerbait esan nahi dizut —aurreratu zitzaidan —haurtzaroko lagunak izan ginen, Nadia naiz.

—Gogoratzen naiz, bai.

—Oso pozik nago zu ikustez.

—Baita ni ere —erantzun diot irribarretsu.

Nadiak eta biok orduak pasatu ditugu hitz egiten, gauza asko gertatu dira elkar ikusi genuen azkenengo alditik. Nor da umearen aita? Non bizi zara orain? Zertara etorri zara New Yorkera? Horrelako milaka galdera entzun dira 234. logelan. Barre-algarak. Emozio malkoak. Musuak. Argazkiak. Besarkadak. Elkartze bero honekin amaitu da abentura desatsegin hau.

PAUSOKA

Iraide Domingo Fernández
Artxandape Ikastola HLBHIP

Pixkanaka-pixkanaka begiak zabaltzen hasi nintzen. Begiak guztiz zabalik izan nituenean dena begiratzen hasi nintzen. Ezagutzen ez nuen jende asko ikusten nuen, ez nekien non nengoen, ezta leku ezezagun honetara nola heldu nintzen edota leku arraro honetan nola amaitu nuen ere. Niretzat ikusten edo sentitzen nuen guztia ezezaguna zen. Buruko min handia neukan eta ez nintzen ezertaz gogoratzen, nire azken oroitzapena zen...

Nire lau lagunak eta bostok aspertuta geunden. Denok plan bat egin nahi genuen, horrexegatik, bururatu zitzaigun egun batzuk Markelen herrian pasatzea. Bostok ados geunden, eta bi egunen ondoren Mundakan geunden, Markelen aititeren etxean.

Oraindik ez dut ulertzen zergatik nagoen gurpil-aulki batean, nik dakidala, ez dut inoiz ibiltzeko arazorik izan. Duela 12 urte hanka apurtu izanak orain eragiten didala izan daiteke. Leku batetik bestera gurpil-aulki honetan eramaten naute, eta zergatik jakin nahiko nuke. Oraindik ez dut ezer ezagunik ikusi edo entzun. Ikusten ditudan pertsonak, lekuek eta gauza guztiek ez daukate zentzurik niretzat. Hori pentsatu bezain pronto, aurpegi ezagun bat ikusi nuen korridorean zegoen telebistan. Nor zen pertsona hori? Zergatik egiten zait ezaguna? Momentu horretan beste oroitzapen bat etorri zitzaidan...

—*Ei! Ohartu naiz Lekeitioko festak direla —oihukatu zuen Oierrek egongelatik —zer iruditzen zaizue gaur joatea?*

—*Bai, noski, herri hau pixka bat aspergarri bihurtzen ari da —erantzun zuen Ekainek.*

—*Nola ez? Goazen denok ondo pasatzera! oihukatu nuen nik ondo pasatzeko asmoz.*

Ez nuen nire familia ikusi leku honetara heldu nintzenetik, nire ama heldu zen arte. Gogo handia nuen nire familiako norbait ikusteko, horrexegatik, nire ama ikustean asko poztu nintzen. «Azkenik aurpegi ezagun bat nirekin» pentsatu nuen besarkada bat eman zidanean. Amak logelan zegoen desordena batzeko ahaleginak egin zituen. Azkenean, ez zuen ezer lortu, irrati zahar bat aurkitu zuen bakarrik. Hura ikustean, musika ipintzea erabaki zuen. Oso musika ezaguna. Non entzun ote nuen?

—*Ur botila bat erostera noa, edateko zerbait ekartzea nahi duzu? —galdetu zidan. Musika horrek eta amaren galderak beste oroitzapen bat burura ekarri zidaten...*

—*Berandu da! Hobeto bueltatzen bagara! —oihukatu nuen, musika oso altua baitzegoen eta bestela ez zidaten entzun-go.*

—*Zer? —oihukatu zidan Markelek, ez baitzidan entzun.*

—*Etxera bueltatu behar dugula! —oihukatu zidan Oierrek nik entzun ahal izateko—. Ondo pasatzera etorri gara!*

—*Hobeto edateko zerbait ekartzen badut. Edateko zerbait ekartzea nahi duzu? —galdetu zidan Aitorrek.*

Lau egun pasa ziren. Pixkanaka-pixkanaka gauzak gogoratzen hasi nintzen, baina oraindik ez zeukaten zentzurik. Oraindik gogoratzen dudana bakarria honakoa da: egun hartan ibiltzen saiaturik nintzen. Aulkitik altxatzean pauso bat aurrera ematea lortu nuen lurrera jausi aurretik.

BOOM! CRACK! PLAS! BOOM! AH!

Eta orain dena gogoratzen nuen. Baina hobeto nengoen ez nuen ezer gogoratzen.

Aste horretara bueltatu nahi nuen, pasatutako guztia aldatu ahal izateko.

Denbora asko pasatu da, oraindik ez dut egun horretan gertatutakoa burutik atera. Zenbatzea da laguntzen didan gauza bakarria: egunak, orduak... baina azkenaldi honetan gehien kontatzen dudana nire pausoak dira...



Bat. Bi. Hiru. Lau, nirekin zeuden pertsonak... Hamar. Hamaika. Hamabi, lotan pasatu nituen egunak... Hamazortzi. Hemeretzi. Hogei, gure urteak... Berrogeita hamabost. Berrogeita hamasei. Berrogeita hamazazpi, pasatu diren egunak... Ehun eta hogeita hamazazpi. Ehun eta hogeita hamazortzi. Ehun eta hogeita hemeretzi. Ehun eta hogeita hamar, gure abiadura... Laurehun eta laurogeita hemeretzi. Eta bostehun. Azkenean lortu dut. Bostehun, kotxe istripua gertatu zenetik egin ditudan pausoak.

Mirkoleta
Mirkoleta

Mirkoleta
Mirkoleta

Mirkoleta
Mirkoleta

Mirkoleta
Mirkoleta

Mirkoleta
Mirkoleta

Mirkoleta
Mirkoleta

Mirkoleta
Mirkoleta

Mirkoleta
Mirkoleta



MIKOLETA
BILBAO BALIOEN HIRIA
C eta D kategoriak



MUNDUAREN AZKEN AUKERA

Adrián Escudero Gutiérrez
San Adrian BHI



URTEA: 1978, HILABETEA: abendua, EGUNA: 12, ORDUA: 16:56

Egun normal bat zen, ez zen ezer ere gertatzen, jendea oso pozik zegoen, umeak jolasten, baina guztiak ez: Lurra ez zegoen pozik; zer gertatzen zitzaion Lurrari?

Lurra konturatu zen oso gauza txarra gertatuko zela klimarekin; lurra garbi zegoen, animaliak jolasten, baina Amalurra ez. Batu ziren Lurreko ministroa, Lurreko alkatea, Amalurra eta Lurreko presidentea eta hasi ziren berbetan arazoaz. Zer gertatzen zen? Mundua pixka bat kutsatuta zegoela. Orduan, zein zen arrazoia? Zarama asko zegoela Lurrean, baina guztiok batu eta konpondu zuten, nola ez.

URTEA: 2002, HILABETEA: azaroa, EGUNA: 3, ORDUA:12:30

Bilboko plazara joan ginen jaiak zirelako, jende pilo zegoen, nola ez. Tre-na hortik pasatzen zen, autobusa, kotxea... hori normala zen, baina arazo bat sortu zen: garraio bide guztiak kutsatzaileak zirela konturatu ziren, baina ez zioten garrantzirik eman, jendeak disfrutatzen zuten, baina Lurrak, berriz, ez.

Lurra oso kutsatuta zegoela agertu zen egunkarietan. Lurra hilko zela eta laguntza behar zuela jartzen zuten; hala ere, jendeak kasurik ez, baina mundua oso txarto zegoen.

Lurra! Lurra! Lurra! Deitu anbulantzia bat, azkar!

Jada ospitalean dago:

—Barkatu hau esateagatik, baina mundua hemen geratu behar da, koman dago eta.

URTEA: 2019, HILABETEA: abendua, EGUNA: 3, ORDUA:5:12

Neska bat nekatu zen gertatu zenarekin, orduan neskek utzi zion eskolara joateari, munduari laguntzeko. Klean jarri zen protestatzen: Munduak ere osasuna dauka! Orduan, jendea konturatu zen hori egia zela. Beraz, neskatila horrekin elkartu ziren manifestazio handi bat egiteko asmoz.

**URTEA: 2030, HILABETEA: urtarrila, EGUNA: 6, ORDUA:22:45**

Hamaika urte pasa dira eta oraindik soluziorik gabe daude. Zer egingo ote dute pertsonaiek?

«Amalurra gaixorik, presidentea hilda, ai ama!»

Neska hori oraindik protestatzen dabil eta Amalurrak deitu dio:

—Bai, nor da?

—Amalurra naiz, etorri ospitalera azkar, mesedez!

—Banoa.

Dagoeneko ospitalean dago.

—Kaixo, Amalurra, zertarako deitu didazu?

—Esateko zu izango zarela Lurra, orain Amalurra izango zara; agur neska, ondo izan...

Eta hil zen Amalurra. Zer gertatuko da munduarekin?

URTEA: 2040, HILABETEA: abuztua, EGUNA: 2, ORDUA:22:00

Mundua hil da, itsasoa lehortuta dago, Bilbo hareaz beteta, ez dago soluziorik.

URTEA: 2050, HILABETEA: OTSAILA, EGUNA: 19, ORDUA:7:45

Hil da azken tximinoa Asian.

**HORREGATIK EZ KUTSATU, BIRZIKLATU! ISTORIO
HONETAN KONTATU DUDANA EZ BADUZUE BIZI NAHI,
AZKAR BIRZIKLATU! ORAINDIK ASTIA DAGO.**

B



HONDAMENERANZKO PASAIA

Katalin Cámara San Pedro
San Ignacio BHI

Arratsaldeko bostak eta hamar dira. Ilargik heltzear egon behar du. Zapatilak jarri, amamak Pragatik ekarritako eskuzorro ziztrin eta minimoa hartu dut, amari agur esanez itxi dut etxeko ate zaharra. Egurrezko eskailera zaratatsu eta zikinak jaitsi ditut, portaleko atea zabaldu bezain laster usaindu ahal izan dut Bermeon famatua den kiratsa. Hanka bat kalean jarri dudanerako, arrain irinaren usain desatsegina itsatsi zait arropan. Nire erlojua begiratu dut. Bostak eta hamazazpi dira, bostak eta laurdenetan geratuta nago Ilargirekin. Plazarako bidean farmaziako termometroak 24 °C adierazten duela konturatu naiz. Gaur goiz atera da eguzkia eta dir-dir darama egun osoa. Egun polita egingen du kalean egoteko, azaroaren 17a izan arren. Dirudienez, eguraldi arraro hau klima-aldaketaren ondorioz da, edo hala esaten dute Teleberrian egunero, baita klasean ere; kaletik ere entzun dezakegu. Nik ez dut uste krisi klimatiko baten aurrean gaudenik, hazkunde bat dela uste dut. Gainera zerbait larria, klima-aldaketarekin zerikusia duena, gertatuko balitz, ni ordurako hilda egongo nintzateke; beraz, niri bost.

Plazara heldu bezain laster, Mikora joan naiz, eta nola ez, han aurkitu dut Ilargi. Nire betiko laguna da, ahizpatzat daukat. Ilargi eta ni izaeraz antzekoak gara, nire benetako ahizpa, ordea, ez. Nire ahizpak dioenez, biak gara ganorabakoak, burugogorak eta oso jatunak. Lehenengo biekin ez nago ba-

tere ados, baina azkenekoarekin bai. Biak gara jatunak, horregatik, topo egin dugu gozoki dendan, eta ez geratuta geunden lekuan. Nik pakete bat pipa eta Coca-cola bat hartu ditut; Ilargik, aldiz, pakete bat Chaskis eta Dorito batzuk. Portura joan gara brisaz gozatzerara. Olatu-horman eseri gara, beti bezala. Ez dago haize bafadarik ere, baina eguzkiak gogor jotzen du. Gozokiak bukatzerakoan plazara joatea pentsatu dugu, izozki bat hartzerara. Handik mugitzeko prest gaude, baina emakume batek geldiarazi gaitu eta zera esan du: «Horrek sastarrak batukoazue, ezta?». Ilargik eta biok begiratu diogu elkarri eta andreaz paso egin dugu. Berak nahi baldin badu, berak batu ditzala gure sastarrak. Bat-batean, haize bolada bat etorri da, ilea aurpegian dut, ez dut ezer ikusten, Ilargik eskutik heldu dit. Hostoek gure aurpegietan talka egiten dute.

Bost minutu daramatzagu eskutik helduta, kikilduta. Ustekabean, haizea gelditu egin da, hostoak desagertu eta izugarritzko beroa egiten hasi da. Gure inguruan begiratu dugu, harrিতuta.

—Zaide, mugitu ahal gara lekuz? —esan du Ilargik erantzunik jaso gabe.

—Zaide, non gaude? —oihukatu dit.

—Ez dakit. Bermeon gaudela esango nuke, baina eraldatuta ikusten dut —ihardetsi dut.

Gure aurrean duguna Bermeo da, horretaz ziur nago. Portuan gaude zehazki. Itsasontzi gutxi daude eta apurtuta daude, izugarritzko galerna bat egon izan balitz bezala. Nik, nahasirik, mugikorra hartu dut Siriri zer gertatu den galdetzeko, hain zuzen ere. Sirik beti izaten dituelako nire zalantza guztien erantzunak.

—Siri, zer demontre gertatu da? —oihu egin diot mugikorrari.

—Creo que no te entiendo —esan dit.

—¡Que qué demonios ha pasado! —errepikatu diot gaztelaniaz, erabat haserre.

—No sé que ha pasado, tal vez podrías explicarme mejor la pregunta.

Argi dago Sirik dena ez dakiela, ez daki zer gertatu den, ezta euskara ulertu ere. Ilargik begiratu dit, ikaratuta dagoela ikusi dut. Eskutik heldu eta handik joan gara. Portuko taberna zaharkitu eta herdoildu guztiak pasata, Yogurísimo denda ikusi dugu, zenbatetan jan izan ditugun hango izozkiak! Udako arratsalde guztietan joan izan gara, zenbat oroitzapen polit aurtengo udakoak! Plazara heldu gara, Mikora. Orain dela ordu erdi topatu garen Mikon ez dago inor: plaza, zabuak, inguruko tabernak, dena dago hutsik, apurturik, graffitiekin, zaborrez inguratuta. Zelako tristura ematen duen. Izutzen hasi naiz, non gaude? Badakit Bermeon gaudela, baina ez 2019ko Bermeon. Lurrean ikusi dut aldizkari bat, makurtu eta hartu egin dut, goitik behera begiratzean, harriturik, oihu batez deitu diot Ilargiri.

—Ilargi! Zatoz hona! Begiratu zer data jartzen duen aldizkari honetan!

—Ezin dut sinetsi... 2045ekoa da —esan du totalka.

—Eta begiratu zer dioen berriak! Bermeon 2035etik ezin da bizi kutsaduraren ondorioz eta urte horretan 536 hildako zenbatu ziren Bermeon arrazoi beraren ondorioz.

—Zaide, gu gara honen errudunak. Ez dugu inoiz planeta zaindu, eta txikitatik gabiltza gutxika-gutxika Bermeo hondatzen, planeta hondatzen. Ez ginen konturatzen, baina Coca-cola, Chaskiak, Doritosak... dena batzen baldin badugu, sastar mordoa da, itsasora doan sastar mordoa, desagertzen ez dena —esan du damuturik.

—Ilargi, zerbait egin behar dugu, ni aldatzeko prest nago.

—Baita ni ere.

Portura joan gara, 2019ko Bermeora bueltatzeko asmoarekin. Plaza, Mikoa, zabuak. **Yogurísimo denda eta taberna guztiak atzean utzi eta olatu-hor-mara itzuli gara.** Agertu garen leku berera. Zerbait gertatuko zain, han jesarrita, isilik, pentsakor. Ordu bat igaro da jada. Kezkatzen hasia naiz. Eta ez baldin bagara inoiz bueltatzen? Hemen geratzen baldin bagara betiko, zer egingo dugu? Nork edo zerk eragin digu denboran zehar bidaiatzea?... Halako galderak daude nire buruan bueltaka, nire pentsamendu guztietan, nire garunean iltzatuta. Nire burutik kea ateratzen da, zerbait gertatzeko itxaroten ari garen bitartean, nire buruari milaka galdera eta teoria etorri zaizkio. Ilargi bere pentsamenduetan murgilduta dagoela nabaritzen da. Isil-isilik dago. Ni urrutirantz nabil begiratzen, ez dakit zehazki zer nabilen bilatzen, agian pistaren bat edota honi zentzua emango dion zerbait. Bat-batean, emakume bat ikusi dut. Aitaren batean olatu-hormatik altxatu naiz. Urduri nago. Emakumea ezaguna egiten zait. Hurbiltzen ari dela gogoratu dut nor den.

—Andre hori ez da lehen sastarrak batzeko eskatu diguna? —xuxurlatu dit Ilargik.

—Ziur berak ekarri gaituela hona —iragarri dut.

Gugana hurbildu da, eta ezer esan gabe gure sastarrak jarri ditu lurrean, lehenago batu nahi izan ez ditugun horiek. Sastarrak lurrean utzi ostean, guri begira geratu da, guk zerbait noiz egingo zain egongo balitz bezala. Ilargi makurtzen ikusi dut, sastarrak hartu eta zakarrontzira bota ditu. Orduan ulertu dut dena. Sastarrak hartu eta zakarrontzira bota ditut. Coca-colak sastarrontzia ukitutakoan, haizea hasi egin da berriro ere, baina oraingoan denbora gutxiago iraun du, minutu erdi baino ez.

Ilargirekin nago eskutik helduta, hostoek aurpegian egiten didate talka. Haizea lasaitutakoan, begiak zabaldu ditut. Hura bai poza! 2019ko Bermeon gaudela! Ezer gertatu ez balitz bezala, haize bolada bat soilik izan balitz moduan. Mugikorra begiratu dut, 17:48ak dira, horrek normaltasunera itzuli garela adierazten du. Ilargiri begiratu diot, malko bat du masaiatik irristaka. Konplize begirada bat zuzendu diot eta irribarre bat itzuli dit.

—Pilak jarri beharko ditugu txarto egin ditugun gauza guztiak konpontzeko, ezta? —esan dit irribarretsu.

—Noski.

Urte bat pasatu da gertakari horretatik. Urte bat daramagu GKEtan parte hartzen hondartzak garbitzen, jendea kontzientziazten eta sastarrak batzen. Izugarrizko aldaketa egin dugu geroztik. Oso harro nago egin dudana hobekuntzaz eta lanaz.



AURKIBIDEA

Sariak	4
--------------	---

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Amonaren zorro magikoa.....	9
• Berria izatea ez da txarra	11
• Opari berezia	13
• Bidaia ahaztezina	15
• Oinatz misteriotsuak	18
• Egin ahal dena.....	20

B kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

• Talde bat gara	25
• Eguneroko esamesak	27
• Ametsaren bila	30
• Zuri globuluaren bidea.....	34
• Gabirel otsoa.....	37
• Nire munduan	40

C kategoria (DBHko 1. eta 2. mailak):

• Hil arte, bizi!	45
• Ashantiren 7 egunak	48
• Talde-lana izan daiteke... txikia	51
• Horrelakoak dira denon bizitzak?	54
• Carlaren ametsa.....	57
• Joan zen bidaia.....	59

D kategoria (DBHko 3. eta 4. mailak):

• Zarena izaten	63
• Zuhaitz baten ikuspuntua	68
• Izarrartekoa.....	71
• Beldurra gainditzen	75
• Bat egin genuen bidaia	78
• Pausoka	82

Mikoleta Bilbao Balioen Hiria (C eta D kategoriak):

• Munduaren azken aukera (C kategoria)	87
• Hondameneranzko pasaia (D kategoria)	90



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



*Mi
Koleta*

*Mi
Koleta*

*Mi
Koleta*

*Mi
Koleta*

*Mi
Koleta*

*Mi
Koleta*

*Mi
Koleta*

*Mi
Koleta*